

ttipi ttapa

371


2004ko apirilaren 1a • XXIV. urtea



**Hizkuntza Eskubideen
Eguna Lesakan**

03

Euskal Herria osoan euskararen ofizialtasuna lortzeko erronkarekin Hizkuntza Eskubideen aldeko eguna antolatu du Euskal Herrian Euskaraz taldeak Lesakan.



**Frontis pilota enpresa
berria sortu da**

28

Inaxio Errandonea da Frontis pilota enpresa berriko pilotari eta kirol arduradunetako bat. «Maita apalago batean bada ere enpresa serioa egin nahi dugu» dio.



04

**Eskual Herriko Titiriteroen
V. Topaketa Zugarramurdin**

MUEBLES AMETS

**Iarunbat
arratsaldetan
irekia**

4000 m² erakusketa

**Sarrera
BERAtik da**
Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com

Sukaldeak, Egongelak, Logelak, Bainugelak

AUKERA HANDIAK



UDALBILTZA®

EUSKAL HERRIKO UDAL
ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

UDALBILTZA®k,

denon giza-eskubide guztien alde egonik,

Euskal Herriko herrien arteko senidetze

programa berezia abiarazi du: HURBILTZEN

www.udalbiltzainfo.com



DATUAK...

• Hizkuntza eskubideen aldeko eguna antolatu du Euskal Herrian Euskaraz taldeak apirilaren 4an Lesakan, «Bai ofizialtasunari! Hizkuntza eskubideak borrokatu!» lelopean.

• Egun honekin, Euskal Herrian Euskaraz taldeak euskaldunok hizkuntza eskubideen arloan daramagun borrokan urrats berri bat eman nahi du.

• Gotzone Rekondo eta Josune Etxeparek erran digutenez, goizean erreibindikazioa eta bazkalondoan besta izanen da.



Gotzone REKONDO-Josune ETXEPARE *Euskal Herrian Euskaraz*

ARGAZKIA: JOXEMANUEL IRIGOIEN

«Euskal Herria osoan euskararen ofizialtasuna lortzea da erronka»

Aitor AROTZENA

Zein dira hizkuntza eskubideen aldeko egun honen helburu nagusiak?

Lehen aldia da Euskal Herri osorako horrelako egun bat antolatzen dena. Egia da azken urteetan hizkuntza eskubideen eta ofizialtasunaren aldeko dinamikak indarra hartu duela, euskalgintzak eta bertze zenbait eragilek egindako lanari esker. Gaur egun gure hizkuntzaren ofizialtasuna Euskal Herri osoan lortzea lehentasunezko erronka bilakatzen ari da. Euskal Herrian Euskaraz taldeak ere, noski, lehentasunezko gaitzat hartzen du euskararen normalizazioa lortzea eta zentzu horretan, hizkuntza eskubideen egun honek ere urrats bat izan nahi du ofizialtasunaren aldeko aldarrikapenean. Bertze aldetik, bertze eragile batzuk ere aldarrikapen honen alde ari dira lanean eta egun honen bitartez indarrak batzen segitzea nahi dugu.

Euskal Herri osoko ekitaldia izanik ere, dei berezia egiten duzue Lesaka, Bortziriak eta orokorrean inguru honetako euskaltzaleek par-

«Euskaldunak hizkuntza komunitate bat gara eta hizkuntza bat duen herria garen heinean, lege babes bakarra behar du hizkuntza horrek lurralde osoan»

te har dezaten...

Egun honen inguruan Lesakan eta inguru osoan sortzen den giroak eskualdean euskararen aldeko sentsibilizazioa haunditzen laguntzea nahi dugu.

Egitarau zabalaren barnean (xehetasunak 10. orrian), Hizkuntza Eskubideen Aldeko Nazio Bilkura azpimarratzekoa da...

Honen helburua Euskal Herrian hizkuntza eskubideak etengabe urratzen direla erakustea da. Horretarako Behatokiak bildutako datuak zabalduko dira eta bertze zenbait lagunek beraien esperientzia pertsonala kontatuko dute. Ondotik, urraketa hauen aitzinean hizkuntza eskubideak zer tresnen bidez bermatzen ahal diren erakutsiko da. Euskal Herrian Euskaraz taldeak argitaratutako «Bide-

ak» liburuxkaren aurkezpena egingen da eta eztabaidarako tartea irekiko da. Euskalgintzarekin eta euskararen normalizazioa helburu duten bertze eragile batzuk gonbidatu ditugu, ehun bat lagun, baina nahi duen orok parte har dezake bilkura honetan, guztiz irekia eta partehartzailea da. Lesaka edo Euskal Herria euskaldundu nahi baditugu herritarrek euskalduntze prozesuari sostengua ematen diotelako izanen da, horregatik garrantzitsua da herritarren parte hartzea eta protagonismoa.

Ofizialtasunaren aldeko leloa izanik, nola baloratzen duzue Nafarroan Euskararen Legearen ondorioz ofizialtasunak dituen eremu ezberdinak?

Euskaldunak hizkuntza komunitate bat gara Euskal Herria osoan eta beraz, hizkuntza bat duen herri bat garen heinean, lege babes bakarra behar du hizkuntza horrek bere lurralde osoan. Nafarroan hiru egoera ezberdin ditu euskarak eta Euskal Herrian hiru baino gehiago. Nafarroan eta Euskal Herria osoan lege babesa eta ofizialtasuna eskatzen dugu.



Estefa Erro eta Mikel Diez, Euskal Telebistako «Txokolatex» saiorako egindako txotxongiloekin: Ardanza, Bandres, Idigoras, Garaikoetxea, Arzalluz eta Txiki Benegas.

ESTEFA ERRO ETA MIKEL DIEZEN OROIMENEZ EGINEN DA

Eskual titiriteroen bosgarren topaketa apirilaren 17 eta 18an Zugarramurdin

Eskual Titiriteroen Topaketa duela zortzi urte antolatu zen lehen aldiz Zugarramurdin, 1996 urtean. “Kukubiltxo” taldean lan egina zuen Mikel Diez hil berria zen, eta bere omenez antolatu zen lehenbiziko topaketa. Aldi berean bertze hausnarketa bat egin zen: nahiz eta Euskal Herrian txotxongiloen topaketak egiten ziren, horiek nazioartekoak ziren eta hemengo talde guztiek ez zuten parte hartzerik. Hutsune hori ikusiz, aukera hau Euskal Herriko taldeendako egiteko profitatu zen.

Koro IRAZOKI

Zugarramurdi aukeratu zuten Topaketa hauetarako, Zugarramurdin bizi baitzen Mikel Diez. Bi urteren buruan Mikelen laguna eta lankidea zen Estefa Erro zugarramurdiarra ere hil zen, eta hortik aintzina bien omenez egiten da Eskual Titiriteroen Topaketa, bi urtetik behin. Aintzineko lau ediziotan parte hartu izan duten taldeak hauek dira: *Kilimiliklik*, *Behi bis*, *Goloka*, *Korroska*, *Bihar*, *Txo Titeres*, *Taun Taun*, *Kukubiltxo*, *Deabru beltzak*, *Taupada*, *Mines de Rien*, *Kukuma*, *Retablo de figurillas*, *Corrado Massacci*, *El tenderete*, *Pagopie*, *Azika*, *Kixka* eta *Gargantua*. Euskal Herrian txotxongilo edo titere munduan lanean ari diren talde guztien

emanaldiak ikusgai izan dira Zugarramurdin.

Topaketa hauetan, txotxongilo ez gain, bertze gisako ekintzak ere antolatu izan dira: erakusketak (Mikel eta Estefaren lanenak, eta *Centro de Titeres*-ekoak), kantaldiak eta kontzertuak (*Ruper Ordorika*, *Gari*, *Xabier Montoia*, *Petti*, *Jabier Muguruza*, *Tapia ta Leturia*, *Joxe Ripiau*, *Potato*, *Zazpi eskale*, *Kukumiku*). Lehenbiziko topaketetan akanpalekua ere antolatu zen.

Antolakuntza eta ekitaldi guztiak jendeak erakusten duen borondate onagatik egiten dira: taldeek ez dute deus kobratzen, eta ordainean lo egiteko lekua eta jatekoarekin batera ematen zaien diruakin konformatzen dira; taldeak hartzen

dituzten landetxeek ere ez dituzte beren prezioak kobratzen; Herriko Etxeak eta Akelarre Elkarrekin beren instalazioak uzten dituzte; aurren lehenbiziko aldiz Akelarre elkarrekin diru-laguntza ere ematen du (taldeei ordainketa duinago bat emateko asmoarekin); eta gainontzeko finantziarioa, antolakuntza eta lana Kisu-labe elkarrekin egiten du.

**MIKEL DIEZ ETA ESTEFA
ERRO: EUSKAL HERRIKO
LEHEN TXOTXONGILO ANTZOKI
EGONKORRA ZUGARRAMURDIN**

Arte Ederretako ikasketak elkarrekin egin zituzten Leioan Mikel Diez eta Estefa Errok eta gero bertze ikastaro batzuk egin ondotik (Frantziako txotxongilo eskolan, Charlevillen, garrantzitsuenak) Mikel panpinak egiteko teknikan espezializatu zen eta Estefa eszenogrfian.

1990ko harmarkadaren hasieran Zugarramurdi tailer bat montatu zuten eta lanean hasi ziren, bertzeak bertze, ETBko *Txokolatex* programarako panpinak egin zituzten (Arzallus, Idigoras, Ardantza, Garaikoetxea eta Txiki Benegas). Panpin hauek *Spitting Image* telesail Britaniarraren Terry Leeren-gandik ikasitako teknika bidez egina zituzten eta gaur egun gisa honetako panpinak ezagunak egiten bazaizkigu ere, garai hartan sekulako ikusmina sortu zuten.

Ondotik *Kilimiliklik* taldea osatu zuten, herriko bertze bi lagunekin batera eta Zugarramurdi *Sorginak* txotxongilo antzeslana muntatu zuten, Euskal Herrian zegoen lehenbiziko Txotxongiloen antzoki egonkorra sortuz.

EGITARAU ZABALA AURTEN ERE



Kukubiltxo taldearen azken lana, «Mamutxak» ikusgai izanen da Zugarramurdi.

Aitzineko lau edizioetan bezalaxe, ekitaldiz gainezka heldu da Zugarramurdiko Eskual Titiriteroen Topaketa apirilaren 17 eta 18an. Euskal Herrian txotxongiloekin lanean ari diren talde gehientsuenek emanaldiak eskainiko dituzte aste hondar horretan.

Larunbat goizeko 11:00etan *Behi Bi*'s taldearen «Macmuak» antzezlanak ikusgai izanen da Akelarrenean. 12:00etan, Antzekizuna taldeak «Pinotxo» lana aurkeztuko du eskolan. 16:00etan Pixka taldearen «Txuribeltz» antzeslana ikusteko modua izanen da Akelarrenean. Ordu bete beranduago, *Deja Bu* taldearen «Zein polita den Panama» lana eskolan izanen da ikusgai. 18:00etan plazara hurbildu beharko da bi antzezlan ikusteko: *El Tenderete* taldearen «Hay que mojarse» eta *Virabolta* taldearen «Titiritero». 19:00etan frontoan *Traboules* taldeak «Gure baitako ilargiak» antzezlan eskainiko du eta ordu bete beranduago, leku berean, *Taun-Taun* taldearen «Te-a-u-ene» lana ikus-

gai izanen da. Topaketa hauen lehen eguna akautzeko, plazan eta karriketan «Hezurdurak» emanaldia eskainiko du *Goloka* taldeak 21:00etatik aitzin.

Igande goizean ere izanen da titiriteroen lanak ikusteko modua. 10:00etan eskolan, *Imagina-T* taldeak «Asvine-ne» antzezlan taularatuko du. 10:30etan Akelarrenean, Bihar taldearen «Las ballenas» antzezlan izanen da ikusgai. 11:30etan plazan *Corrado Masacciren* inprobisazioarekin gozatu ahal izanen da. *Azika* taldeak «Herrialde urdina» emanaldia eskainiko du eskolan 12:00etan. Txotxongilo taldeen emanaldiak akautzeko, *Kukubiltxo* taldearen «Mamutxak» ikusgai izanen da plazan eta karriketan 13:00etatik aitzin.

Ez da horretan akautuko, ordea, bosgarren Eskual Titiriteroen Topaketaren egitaraua. Musikak ere izanen du bere tarte eta 18:00etan Anarik kantaldia eskainiko du Akelarrenean. Gainera, eguerdiko apertifa musikarekin alaitua izanen da, txaranga ibiliko baita.

Iñigo ARBURUA «Kilimiliklik» taldeko kide ohia

“Udan egunero eskaintzen genituen emanaldiak”

Noiz sortu zen Kilimiliklik taldea?

“Sorginak” espektakulua montatzen orai 13 urte hasi izanen zen, eta gero bi urteren buruan, 1993an hasi ginen emanaldiekin. Lau lagun aritzen ginen, Estefa, Mikel, Joxe Arburua lehengusua eta ni.

Zenbat emanaldi eskaini zenituzten?

Hori izaten zen sasoiaren arabera. Udan egunero ematen

genuen eta neguan, ikastetxeekin eta aritzen ginen lanean, propaganda bidaltzen genuen eta autobusetan etortzen ziren. Jende dexente biltzen zen beti. Lau urte iraun zuen “Sorginak” espektakuluak.

Zer oroitzapen utzi dizu sa-soi harek?

Modu guzietako oroitzapenak. Bi lagun joan ziren urte haietan eta alde horretatik tristeak, baina esperientzia bezala ha-

gitz ona izan zen. Geroztik, haiek hil eta gero gure inspirazioak joan ziren. Bakoitza alde batera hartu zuen eta erabat utzi genuen txotxongilo eta antzerki mundua.

Titiriteroen Topaketan parte hartzen duzu?

Bai, Kisu-labe elkarrekin ardurtzen da antolaketaz eta beti hor sartua nago, eskua botatzeko prest. Mikel hil eta urte berean hasi ginen hiruen artean besta hau prestatzen eta handik bertze urte batera edo bira gan zen Estefa eta Kisu-labek hartu zuen antolaketak.



Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 6.000 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitate: Kulturkari, SLU

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena.

Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakek Gofii.

Kolaboratzaileak: Rakek Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Maletrrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Hutsegite politikoa

Etxalarko EAK ateraberrria du Alkarberri buletina. Berri paper horretan, hainbat berriren artean, Ttipi-ttapari buruzko bat ageri da. Bertan, bertzeak bertze, Etxalarko EAK erraten du euskarazko komunikabideen alde dagoela.

Guk, Herri Taldekook, ordea, ez dugu ulertzen EAREN jarrera. Nola laguntzen ahal da bidean harri kozkorak jarri dizkiotenean? Alokairua ordain dezatela erratea, laguntzea da? Ni neroni harro nago Ttipi-ttapa Etxalarrera heldu delako. Gainera, gure taldearen apustua tokia doan uztea da; eta halaxe egingen dugu.

Maltzurkeria puntu bat ere harrapatzen diogu haiek idatzitakoari. Behin eta berriz aipatzen dute "Etxalarko alkatearen eta Ttipi-ttaparen artean sinaturiko akordioak". Horrela erranda, ematen du alkatearen gauza bat izan dela. Nik argitu nahi dut, Alkateak batzarretan hartzen diren akordioak sinatzen dituela, Ttipi-ttapakoa barne.

Bertzalde, galdera bat utzi nahi dut airean. Izan ere, jakin dugu Ttipi-ttapa Lesakarat joan dela eta ez Berarat. Etxalarko Herri taldeak poza hartu du; Etxalarko EAK ere bai; eta Berako EA ere poztan da? Eta Aralar? Berako talde politikoaren eta herritarren iritzia jakin nahiko nuke nire ustez hutsegite politikoa delako herri komunikabide bat abandonatua uztea.

Leitzakoek ere izanen dute zer erran. Leitzako UPN eta EAK Ttipi-ttapari diru laguntza kendu nahi dioten zurrumurruak bai-

tira. Hori da euskarari laguntzeko modua?

Lesakako Juan Fermín Mitxelena eta Deñe Abuin, PNV eta Onineko buruak zoriontzea bertzerik ez zait geratzen, arazo honen aurrean agertu duten begiruneagatik eta Ttipi-ttapari emanen dioten laguntzagatik. Bitartean, Ttipi-ttapa ongi etorria izango da Etxalarren.

Hor dago nire pentsamoldea. Orri hauetan erantzun nahi badidazue, zain nago.

Patxiku IRISARRI
Etxalarko alkateordea

Doneztebako Udala eta bertsolaritza

Doneztebako Udalak euskararen gain orokorrean eta bertsolaritzaz bereziki duen sensibilitadeara aipatu nahi nuke. Martxoaren 13an Donezteben ospatu zen Nafarroako txapelketako kanporaketan, Udalak erdaldun baten eskutan utzi zuen egoitzaren ardura. Hori honela, gaztelaniaz egitera behartuak izan ziren bertsotan ari behar zitenak eta ikusleak ere, edozein eginbehar zen orduan. Horretaz gain, zinea hotz zegoen eta berogailurik ez zuten bizitu ere. Udaleko kultur zinegotzia ez zen agertu ere, eta bertara hurbildu zen zinegotzi bakarra, erdalduna bera, agertu eta ea zein herrialdekoak ziren partehartzaileak galdetu (erdaraz, jakina), eta berehala aldegin zuen.

Bertsolaritzaz eta euskararekiko sensibilitadeara izatea ez du inongo «beharrik» Udalak, baina kontutan hartuz udal honen osaketa (EAKo 5 eta 4 EAJkoak), euren al-

detik zerbait gehiago espero dugula argi dago.

Doneztebar bat

Ttipi-ttapa, komunikabide bat baino gehiago

Azken asteotan, berri ere, hizpide izan da Ttipi-ttapa Fundazioaren egoitza. Irabazi asmorik gabeko erakundea izaki, eta euskararen normalizazioaren berebiziko garrantzia duela aintzat hartuta, Berako Aralar osatzen dugunok honako gogoeta plazaratu nahi dugu:

1. Ez zaigu bidezkoa iruditzen inongo erakunderen egoitza zein proiekturen etorkizuna baldintza dezakeen erabakien eztabaida prentsaren bidez egitea, eta are gutiago interesatuak modu horretan enteratzea afezaz. Kasu honetan, Ttipi-ttaparen egoitzaren kontuarekin pilota noren teilatuan utziko duten galdetza ibili dira, Beratik Etxalarrera, Lesakara, Berara... Proiektuak serioitasun gehiago merezi duen bezala, ardura politikoa dugunok ere serioitasun gehiago agertu beharrean gara.

2. Ttipi-ttapa Fundazioaren lana goraiatu nahi dugu, euskararen normalizazioan funtsezkoa, eskualdean eragin nabaria izan duena, eta bertako biztanleen kohesiorako garrantzitsua. Guztioi idekiriko proiektua izaki, sortu zenetik 24 urteotan erakutsi duen ibilbideak ongi egingako lana uzten du agerian, sentimenditate guztiek izan dutela, dutela eta izanen dutela leku bertan. Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politika sun-

tsitzailearen garaioan, non euskalgintzako erakunde guztiak mehatxupean paratu diren, inoiz baino laguntza sendoa goa behar dute gisa honetako proiektuek, hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean paratzen digutenak, hizkuntza eskubideak giza eskubideak ere baitira.

3. Ttipi-ttaparen egoitzak etorkizunean non egon behar duen ez luke inongo udalaren menpe behar. Edonola ere, 24 urteotako ibilbidean hertsiki loturik agertu da Ttipi-ttapa Berako herriarekin, eta ez gure nahi hau bat-batean, eta utzikeria medio moztea. Ibilbideak, eskualdearen izaerak eta zerbitzuaren eskakizunek bideratu behar harko lukete gaia, bereziki, Ttipi-ttaparen iritzia kontuan hartuz. Aralarrek ahailegin berezia egingen du Ttipi-ttaparen eskari horri erantzuteko, nahiz jakin egoitzen hutsa nabaria dela Beran.

4. Proiektuaren asmoak eta onurak gure egiten ditugun bezala, gainerako alderdi politiko, gizarte eragile, instituzio eta norbanakoak Ttipi-ttaparen proiektuarekin bat egitera gonbidatzen ditugu, aberasten gaituelako, gizarte osoa aberasten duelako. Euskarazko komunikabideen garrantzia estrategikoan sinetsita, eta bereziki herri komunikabideetan, datozen hilabeteetan eskualdean sektorearen etorkizunaren oinarriak finkatzeko konpromezua berresteko eskaria egin nahi diegu agintari zein gizarte eragileei. Euskara, guztion altxorra, hizkuntza bizia izatea nahi dugulako.

Berako ARALAR

LESAKAko

I. ERDI AROKO

AZOKA

Pedro Lanz
Burdin artisaua
ERAKUSKETA



Apirilaren 12tik 25era
Beti-Gazten Egoitzan
Arratsaldero 18,30etatik 20,30ora

"Lesakan zehar"

Lesakan zehar ibilbidea azalpenekin



Apirilak 16an
Arratsaldeko 5etan
Plaza zaharrean

III. Herri olinpiadak
Goiz eta arratsaldez



Apirilak 17an
Plaza Zaharrean



Erdi Aroko Azoka
Apirilak 18 Igandea

Keramika tailerra - Kale animazioa - Magoak
Zetzerria - Poniak eta Zaldiak - Lore tailerra
Bolilloak - Harri tailerra - Margoak ...
Goizeko 10etatik Iluntzera arte

Sorginkeria Lesaka

Hizlaria... Juainas Paul Arzak

Apirilak 22an

Herriko Erreko Bazar aretoan, 7tan

Antolatzailea:



Lesakako
Udal Kultur
Batzordea

Laguntzaileak:



Liburuaren eguna

Ipui Kontalaria

Apirilak 23an

Liburutegian arratsaldeko 5etan

Ezagutu dezagun Lesaka

Haurren lehiaketa

Apirilak 24an

Plaza Zaharrean
Goizeko 11tan

Bertso saioa

Andramari egoitzan

Apirilak 24an

Arratsaldeko 5etan

TANTIRUDANTZA

Dantza talde desberdinen erakustaldia

Apirilak 25en

Kalek kale 12etatik aurrera

KULTURA

Erdi Aroko Feriaren lehenbiziko edizioa antolatu dute Lesakan apirilaren 18rako

Garai hartako Feria egun bat erreproduzitu nahi da, bere osagai guztiekin

ttipi-ttapa

Erdi Aroko Feria urteztez urte irauteko asmoarekin antolatu du aurtien lehenbizikoz Lesakako Udakultur Batzordeak. Egun horretan, apirilaren 18an, erdi aroko feria egun bat erreproduzitzeko da Lesakan, eta herria girotzeko garai hartako ohitura, produktu eta musikaz beteko dira Lesakako karrikak. Goizeko 10etan hasi eta iluntzera arte izanen den Feriala honetan keramika tailerra, karrika animazioa, falkoneria, magoak, beira, harri eta lore tailerrak, zaldittoa, eta margoak izanen dira ikusgai.

“LESAKA EZAGUTU”

HAMABOSTALDIA

Aurtengoan, dena den, Erdi Aroko Feriala egun hau “Lesaka ezagutu” izeneko egitarauaren barnean aurkeztu dute. Egitarau horrek bi asteko iraupena du eta osotara 21.000 euroko aurrekontua du. Kopuru horretatik zatirik handiena, 14.400 euro, Europako Leader+ programatik finantziaztea espero dute, eta gainerakoa Lesakako Udakalaren egina du.

Lesaka Ezagutu izenburuarekin, herriko kultura, ondare eta turismo baliabideak indartu nahi ditu Udakultur Batzordeak. Horretarako, Erdi Aroko Feri-



Eguna iragartzeko argitaratutako kartela

a egunaz gain, jarduerak gehiago izanen dira.

Burniaren inguruko erakusketa da horietako bat, eta Pedro Lanz eskulangilearekin egina da. Burnia lantzen familia tradizio luzea du Lanzek eta arotxaren alde artistikoa erakutsiko du apirilaren 12tik 25era. Beti Gazte elkartearen egoitzan, arratsaldeko 6:30etatik 8:30etara irekiko den erakusketa. Jakina baita burniak Lesakan eta Bortzirietan

izan duen garrantzia. Lesakan hainbat burni mehategi izan dira, garrantzitsuenak Urteaga, Baldrun eta Belzaunen. Bortzirietan 1378an hemeretzi ola ari ziren lanean, batzuk Kaxernako nagusia zen Zabaleta jaunarenak.

Apirilaren 16 eta 24an, bertalde, herria hobeki ezagutzeko *Lesakan zehar* ibilbidea presatatu da. Lehenbiziko egunean, karrikaz karrikako bisita gidatua nahi

duenarentzat eta bigarren egunean, Irain eskola eta Tantirumairu ikastolako ikasleekin egina da, lehiaketa batekin. Bietan ere helburu bakarra izanen da, historia eta ondare arkitonikoaren berri ematea. Apirilaren 16ko bisita gidatua Rafael Eneerreaga, Egoitz Telletxea eta Jose Miguel Telletxea izanen dira gidari eta azalpenak euskaraz, frantsesez eta gaztelaraz eskainiko dira.

Haurrendako ibilaldia dinamikoagoa izanen da, jokuen bitartez Lesakako etxe nagusiak eta dorreak ezagutu eta emanen zaien galdetegi osatu beharko baitute.

Apirilaren 22an, berri, *Sorginkeria Lesakan* solasaldia eskainiko du Juinas Paul Arzak historialariak Herriko Etxeko batzar aretoan, arratsaldeko 7etan. “Gure historia eta kulturaren aztarna sakona utzi zuten emakume haien bizia, akelarreak, inkisizioa borts herrietan eta bertze hainbat konturen berri” emanen du Juinasek solasaldian.

APRIL OSOA

AKTIBITATEZ BETEA

Apirilaren 7an, bigarren hiruhilabeteko kontzertua eskainiko du Lesakako Musika eskolak Herriko Etxeko batzar aretoan, 6etan.

Apirilaren 17an, Lesakako Gaztik antolatua *Herri Olinpiadak* izanen dira Plaza Zaharrean, goizetik hasita.

Apirilaren 23an, *Liburuaren Egunean*, ipuin kontalaria izanen da liburutegian 5etan.

Apirilaren 24an *bertso saioa* Andra Mari zaharretxean, arratsaldeko 5etan eta apirilaren 25ean, Tantirudantza *dantza taldearen saioa* izanen da karrikaz karrika eguerditik goiti.

Lesaka hobeki ezagutzeko ekitaldiz betetako apirila, beraz.

BERA

Udal liburutegia digitalizatuko da

Apirileko kultur agenda ekitaldiz gainezka heldu da

Amaia eta Ainhua

Udal liburutegiaren digitalizazioa egingen da hurrengo hilabeteetan, Nafarroako Gobernuak abian duen plangintza-aren arabera, eta Bera-ko Udalarekin elkarla-nean. Digitalizazio ho-rri esker, Nafarroako edozein liburutegitik kontsultatu ahal izanen da zein liburu dauden Nafarroako Liburutegi Sarean. Lan hori egite-ko, Udalak liburuzain teknikari bat hartuko du aldi baterako. Bete be-harrekoen artean, for-makuntza akademikoa-ri dagokionez, Lanbide Heziketa II eta Goi Mai-lako Batxilergoa eduki beharko du interesa-tuak, euskararen eza-gutzari dagokionez, EGA edo baliokidea den titulua izatea edo titulua ez dutenentzat proba baztertzalea egin da martxoaren 29an Ri-cardo Baroja eskolan. Proba teknikoa, apirila-ren 1ean 10:00etan.

Bertzalde, Nafarroa-ko Gobernuak Udal Li-burutegi Publikoa ku-deatzeko hitzarmen be-rria proposatu dio Uda-lari. Indarrean dagoen hitzarmenarekin alderat-uta, hauxe da aldatzen dena orokorrean: Uda-lak egin beharreko ekar-pen ekonomikoa 5000 eurokoa izanen dela, eta ez 3000 eurokoa orain arte bezala, eta fotoko-piagailu bat jarri behar-ko duela. Hau ikusirik, Udalak Nafarroako Go-bernuak proposatu hi-tzarmen berri hau onar-tzea erabaki du.

Kultur agenda

Apirila kultur ekital-diz beteta dator. Kultur Batzordearen eskutik apirilaren 5etik 18ra Glo-ria Askasoren erakus-keta ikusi ahal izanen da, apirilaren 5ean En-karni Genua eta Txo-txongillo taldearean "Galtzagorriak" ikuski-zuna Berako Haur Hez-kuntzako ikasleentzat



UTZITAKO ARGAZKIA

Ander Rodriguez Korta Gipuzkoako igeriketa txapel-dun Martxoaren 13 eta 14an Tolosan jokatu zen Gipuzkoako Igeriketa Txapelke-ta eta Ander Rodrigex Kortak aurten junior mailan parte hartu du. Anderrek 200 metro bizkarka 2'21"tan egin zuen, 200 metro estilo 2'20"tan eta 400 me-tro estilo 5'03"tan. Emaiza hauekin lehenengo postua lortu zuen hiru fro-gatan eta horrela Gipuzkoako Txapel-dun bihurtu da Junior mailan. Hurren-go astean, martxoaren 19 eta 20an, Zarautzen Euskal Herriko Igeriketa Tx-a-pelketa jokatu zen eta honetan ere beratar gazteak emaitza onak lortu zituen nahiz eta ikasketengatik entrenatzeko denbora aunitz ez zuen izan. 100 me-tro bizkarka (1'05"03), 50 metro bizkarka (29"80) eta 50 metro estilo libretan (25"79) hirugarren postua lortu zuen hiru frogetan.

Kultur Etxean 10:00e-tan. Apirilaren 8an Kan-tu Koralarren Akade-miako kideen kontzertu ere aditu ahal izanen da leku berean 19:30etan eta apirilaren 21etik maiatzaren 26ra aste-azkeneko Labiaga Ikas-tolaren eskutik Betiko Euskal Kantu Zaharren Ikastaroa izanen da. Ikastarorako izena ema-teko eta informazio gehiagorantzeko 012 te-lefonora deitu.

Turismoa dinamizatzeko plana

Udalak martxoaren 15ean egindako batzarre-an, Cederna Garalur elkartearekin bilerak egin ondotik, Ekonomia Ministerioaren, Nafarroako For-u Erkidegoko Kultura eta Turismo Departamen-tua, Vianako Printzea Erakundearen, "Nafarroa-ko Mendialdea" turismo xedearren Kalitate-pla-nera atxikita dauden toki-erakundearen eta ETKIk Nafarroan duen lurralde-ordezkaritzaren arteko lankidetzat hitzarmena onartzea erabaki zuen Na-farroako Mendialdean turismoa dinamizatzeko plan bat garatzeko. Turismoa Dinamizatzeko Pla-naren jarraipen-batzordean izanen den ordezka-ritza, "Nafarroako Mendialdea" Turismo Kalitate-rako Lantaldean izendatuko dituen bi lagunaren es-ku utziko du Udalak.

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizaturia

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

© 948 631462
Altzate I • BERA

Xicall

GOYA
arropak • maindireak
Mantak • nordikoak
toallak • kortinak
Alfonbrak
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

ERROTAZAR

Harategia

Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

LESACA

Hizkuntz Eskubideen Eguna egingen da apirilaren 4an

Euskal Herrian Euskaraz talde euskaltzaleak antolatua

Aitor AROTZENA

«Bai ofizialtasunari! Hizkuntza eskubideak borrokatu!» leloarekin Hizkuntza Eskubideen Eguna antolatu du Euskal Herrian Euskaraz talde euskaltzaleak Lesakan apirilaren 4an. Egun honekin, Euskal Herrian Euskaraz taldeak «euskaldunok hizkuntza eskubideen arloan darabagun borrokan urrats berri bat eman nahi dugu, hizkuntza eskubideak lortzeko beharrezkoa den tresna zein den jendarteratu nahi dugu, bertaratzen diren euskaltzaleak sentsibilizatuz eta kontzientziazatuz». Euskal Herri euskaldun bat erdiesteko «konpromisoa dugula» eta «bakoitzak eragiten badugu errazago lortuko dugunaren ideia» azpimarratu nahi dute.

Egitaraua goizeko 10:30etan hasiko da, karrika buelta eta altxafarroekin. 11:00etatik 13:00etara Hizkuntza Eskubideen Aldeko Nazio Bilkura egingen da Kasinon. Bertan, euskalgintzan ari diren ehun bat lagun gonbidatuko dira eta gainontzeko he-

rritarrek ere ateak zabalk izanen dituzte bertan parte hartzeko. Hizkuntza eskubideei buruzko hausnarketa egitea, hizkuntza eskubideen urraketen agerpen argia bilatzea eta hizkuntza eskubideen defentsarako urratsak ondozotatzea dira Euskal Herrian Euskaraz taldeak bilkurari jarri dizkion helburu nagusiak. Aipatzekoa da lehenbiziko aldia dela honelako zerbitzu antolatzen dela Euskal Herri osoan.

Bilkura hau egiten den bitartean, 11:00etatik 14:00etara erakusketak izanen da ikusgai Alondigako arkupean. 13:00etan manifestazioa eta 13:30etan ekitaldia egingen da plazan. Ondoren, 14:30etan bazkaria izanen da frontoian. Bazkalondoa alaitzeko Herburu txaranga arituko da. 17:00etan, berriz, *Patxin eta Potxin* pailazoen emanaldia eskainiko dute plazan. 18:00etan, Patxi eta Batxiru taldeek kontzertua eskainiko dute frontoian eta 20:00etatik 21:00etara bukaera ekitaldia egingen da.



ARTXIBOKOA

Joan den urteko arrakasta ikusita, herriko gazteek Herri Olinpiadak antolatu dituzte aurten ere apirilaren 17an. *Lesaka ezagutu* proiektuaren barnean bertze ekitaldiak ere izanen dira apirilean: Pedro Lantz arotxaren lanen erakusketa, ibilaldia Lesakan barrena Rafael Eneterreagarekin, Erdi Aroko *Feria*, *Sorginkeria* Lesakan solasaldia Juainas Paul Arzak historialariarekin...

Babes Ofizialeko 27 etxebizitza eta lokalak eraikitzeko kontratua egin da

Udalak 783.994 eurotan adjudikatu dio Aldi Baterako Enpresa-Batasun bati

A.A.

Antoiu karrikan, Andra Mari erresidentzia zaharrak hartzen zuen 2.986 m²ko lur eremua saltzeko kontratua *Promociones Garro-Lorenzo*, *SL* eta *Seripe SL* osatutako Aldi Baterako Enpresa-Batasunari adjudikatu dio Udalak, 783.994,30 euro (BEZ barne): 545.599,93 euro lurzatiari dagozkionak; 122.621,99 euro babes ofizialeko 27 etxebizitza eta lokalak eraikitzeko proiektuari dagozkionak eta 170,41 metro koadro izanen dituen bulego

planta egiteko 115.772,38 euro.

Aldi Baterako Enpresen Batasun honena izan zen aurkeztutako lau proposamenen artean onena, Udalak emandako puntuazioaren arabera. Lesakako *Bordamine* enpresak 615.960 euroko proposamena aurkeztu zuen, *Iniciativas Urbanas Arancok* 614.882,36 eurokoa eta *Azsek* oinarritzko prezioa, 611.257,19 euro. Gaitzera, enpresa honen proposamena lokalak eta bulegoak 1.194.102 eurotan saltzera bal-

dintzatua zegoen eta Udalak konpromezua hartu beharko zuen berak prezio horretan erosteko, baldin eta promozioa akautzen denean lokal eta bulego guztiak prezio horretan ez baidira saldu. Proposamen honek zenbait arazo eragiten zituen eta horri buruz solasteko bi hilabetez bilerak egin ditu Udalak Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Zerbitzuarekin. Azkenik, Azse enpresaren proposamena ez onartzea eta Enpresa-Batasunari ematea erabaki zuen epaimahaiak.

ANA
Janari idenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESACA

XATURETXEA
Zafra
JATETXEA
Tfn: 948637027 LESACA

IRU BIDE
ENETERA
Tfn: 948 637 127
LESACA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESACA
IMANHA, TELLETXEA ZUAYRA
Gasola etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

ETXALAR

Afari batekin akautu zen Larraburuko Magra-txapelketa

Jende andana mugitu zuen bertze urte batez Usategietako auto igoerak

Joseba eta Nerea

Joan den martxoaren 21ean akautu zuten Larraburuko mus eta partxiszaleek urtero, hutsik egin gabe, egiten duten Magra Txapelketa. Bikote andanak hartu zuen parte aurtengoa ere eta hainbat igandez musean nahiz partxisean gogor aritu ondok erabaki ziren aurtengo txapeldunak. Musean Juan Maia eta Santiago Mikelestorenak irabazi zuten, Joxe Angel Tomasena eta Juan Antonio Arburuari finaleko partidu irabazi ondok. Partxisean berriz hiru enpate egon ziren eta zozketa bidez erabaki zituzten irabazleen izenak, Santiago Olasagasti eta Jabier Indaburu hain xuxen. Bai mu-

seko eta bai partxiseko irabazleek urdaiazpiko bana eraman zuten sarritat eta museko bigarren bikoteak sorbalda. Ohitura den gisan, afari ederraren bueltan bildu ziren joan den igandean partehartzaile guztiak, eta menuko plater nagusia, nola ez, urdaiazpikoa tomatearekin. Erran digutenez, gogotsu daude hurrengo urtean ere berriz sari-keta honekin hasteko.

Larraburuko batzar orokorra

Berrikuntzarik gabe joan zen Larraburua elkartearen urteroko batzarra. Martxoaren 14an egin zuten egoitzan eta bertze urtetan baino jende guttiago bildu zen aurtan, tenore berean



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Jende olde haundia mugitu zuen bertze urte batez Usategietako VII. Auto Igoerak. Eguraldi ederra lagun, jendez gainezka ageri ziren goiz-goizetik herri bazterrak eta Usategietako errepidea autozale guzien gozaleku izan zen igoera bixi eta ikusgarri batean. Arazorik gabe egin zuten ibilbidea auto guzietan eta hiruak inguruan herrira jautsi ziren denak sari-banaketara. Aurtan ez zuten herriko auto-gidariak parte hartu eta irabazle guztiak kanpotarrak izan ziren. Edozein moduz, igoera arrakastatsua izan zela erraten ahal da. Eguzki Sport eskuderiako antolatzaileak bederen gustora zeuden bai partehartzaile kopuruarekin bai ikustera hurbildu zen jende parrastarekin ere.

Usategietako Auto Igoera zela eta. Junta berritzearen gaia mahai-gainean paratu baldin bazen ere, ez zen al-daketarik izan eta lehengo kideek segituko dute juntan. Hori bai, heldu den urterako ekin-tza berrien artean gizon-ekoentzako pelukeria bat sortzea pentsatu zuten eta oraindik deus zehaztu ez bada ere, jendea juntatuz gero, egiteko asmoa badutela erran digu Jabier Indaburu elkarteko lehendakariak.

Nobedadeak Altxata kultur elkarteak

San Jose egunarekin egin zuten Altxata Kultur Elkarteak bere batzarra. Berrikuntzen artean aipatzen ahal dugu Kontxi Antxorenajunta-kideak utzi zuela eta bere ordezkari Ariztegi sartu dela. Gainerakoak hor segituko dute; Ainara Arburua lehendakari, Iñaki Danboriena lehendakariorde, Jon Santsiñena diruzain, Nerea Mitxeltoarena idazkari eta Mari

Asun Olagarai bokala, orain Izaskunekin batera.

Mahai jokuarik ludotekan

Altxata kultur elkarteak, 6-12 urteko haurrei zuzenduta, ludotekan mahai jokuetan ikasteko eta aritzeko saioak antolatu ditu. Lehen saioa joan den larunbatean, martxoaren 27an, izan zen, arratsaldeko 3,30etatik 5,30etara, baina datozen hilabeteetan saio gehiago egingen dituzte.

KOXKILA OSTATUA
Berrito mus Koxkilan!
Astero opari ederrekin

Zarandia, 4 - LESAKA

loredenda

Albistur, 39-K
☎ 627542
LESACA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

LEGARRA

Prentsa	Fax publikoa
Liburuak	Plastifikazioa
Tabakoa	Enkuadernazio
Opariak	lanak
Kukuxumusu kamisetak	lanak

Egunero irekia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

HERRIKO
JATETxea

Albistur, 39-K • 627 54 02
Txartel • MAPA 101

IGANTZI

Apirilaren hondarrerako Kultur Egunak prestatzen ari dira

Oraingoz ez dago igerilekuetako udako lana eginen duenik

Oskar TXOPERENA

Kultur ekintzak urteko bertzeko sasoi batzuetara zabaltzeko asmoarekin, apirilaren azken asteondarrerako zenbait ekitaldi prestatzen ari da Euskara Batzordea. Egitaraua lotzen dutenean emanen dizuegu jakitera, baina eginen den ekitaldietaiko bat aipatuko dizuegu. Aspaldian zebiltzan herri kirol taldekoek Miguel Angel Etxarte zenari omenaldia egin nahian. Apirilaren 25ean izan da omenaldia eta dagoeneko bilerak eginen hasiak dira Herriko Etxea, Biltoki Elkarte eta Herri Kirol Taldea.

Igerilekuko lana

Martxoaren 11an akautu zen igerilekuen mantenimenduaraz arduratzeko eskaintzak aurkezteko epea. Inork ez zuen eskaintzarik egin eta Herriko Etxean lanak banatzeko bertzeko moduren bat bilatzen hasiak dira. Erran genuen aurtengo denbo-



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Martxoaren 14an Espainako kongresua aukeratzeko hauteskundeak izan ziren. Orain dela lau urte baino partehartze handiago izan zenez, ez omen zitzaizkion Eli Urbistondo, Joxe Mari Mitxelena eta Andoni Etxenikeri eguna aspergarriegia egin. Gainera, bozkatzeko leku berria estreinatu zuten, eskolaren beheko solairuan, medikuaren kontsulta zegoen lekuan. Orain arte lehenbiziko solairura igo behar izaten zen eta aspaldian baziren aldatzeko eskaerak. Inguru guzian bezala, Nafarroa Bai izan zen garaile 176 botorekin.

raldirako Nafarroako Gobernuak arauak aunitz gogortuak zituela.

Biltokiko batzarra

Martxoaren 13an egin zen, bigarren saioa, Biltoki Elkarte urteko batzarra. Azken urtean egindakoaren be-

rra eman zuen hasieran Juntak, gero bazkideen eskaera eta galderen txanda etorri zen, eta azkenik Juntaren erdia berritu egin zuten: Lehendakari lanetan Joseba Migelena—oker ez bagaude, orain arte izan den gazteena—; bokal

berriak, berriz: M^a Angeles Telletxea, Consuelo Migelena, Xabi Telletxea, Miriam Etxarte eta Luis Javier Txoperena izanen dira. Urterotaren erdia berrizten denez, bertzeko sei lagunekin hamabiko taldea osatuko dute.

Herria ezagutuz



Zanbudioren borda
Herriko Etxeko artxiboko 6. liburuaren 190. orrialdean idatzi hauxe irakurtzen ahal da: “vender a Miguel Joseph de Zamudio un terreno lieco en el paraje Acotrin Celaya (...) por la parte de arriba Camino Real a Aranzaz (...) por la parte que mira a esta Villa con camino a Choperemborda”. Garai hartan Taberneako jabea zen gizaseme hau—hortik bi etxeek orain dela gutti arte izan duten harremana eta garbi dago gaur egun Zanbudioren bordak hartzen dituen lurretaz ari dela idatzia. 1808an aipatzen da lehenbiziko aldiz baserriaren izena “Borda de Zamudio” eta 1811ra-ko jendea bizi zen bertan. Bada, Miguel Joseph de Zamudio Arraratseko Maria Miguel Alberroren ezkondu zen, seme bakarra izan zuten, eta nonbait seme hau hil edo ondorengorik izan ez zenez, Alberrotarren eskutara pasatu zen baserria. 1870a inguruan Martin Choperena ezkondu zen Alberrotar batekin, Maria Miguel hau ere, eta modu horretan gaur egunera arte gelditu da lotua bere abizena baserriarekin.

ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzioko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiama, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**



☎ 948630155
BERA

JOSE I. GONZALEZ ENGUITA
PINTURA LANAK OROKORREAN

666 235 466
948 630 683

Bidasoa 49 - 1.ezk • 31780 BERA

ZJ
Zalain
jatebrea

100 ZALAIN DIN • TEL. 948 63 39 47
Bera - Nafarroa

ARANTZA

Maiatzaren 30ean egingen da Arantzako Bigarren Mendi Itzulia

Herri kirol jolasetan eta pilotan jardunaldi erabakiorrak izan dira asteburuan

Nerea ALTZURI

Udaberrian giro on eta epelarekin sartu ginen martxoaren 20an. Biharamunetik ordea, kopetilun, euritsu eta hotz egunetan, negura itzuli ote ginen iruditu zitzaigun. Berriz ere elurtuak ikusi ditugu mendi gainak joan den hilabete bukaeran bezalaxe. Kazkabarrak, euriak eta orohar negu ukituko giroak egunak hartu ditu hilabete honetan ere.

Mendizaleek hala ere, eguraldi ederrak, garbiak eta ateriak nahiago izaten dituzte mendi ibilaldiak egiteko. Heldu den maiatzaren 30ean zer eguraldi izanen den jakitea beharbada goizegi da. Gehigixko izanen da eguraldiaren gainekoak zeintzu izanen diren egun horretan jakinaztea. Herriko mendietan barna itzulia egiteko hobe eguraldi polita izatea ez? Ibiltzeko, paisaiekin eta mendiekin gozatzeko...

Joan den urtean, be-



ARGAZKIA: XABI ZUGARRAMURDI

Herri inguruko mendien barna egingen da aurten ere Mendi Itzulia.

helainoak eraso egin zuen arren, mendigizale aunitz hurbildu zen itzulian parte hartzera. Iaz ekainaren 8an egin zen mendi itzulia; aurten, maiatzaren 30ean. Guzia prestatzen hasiak dira Ekaitza elkartearen lana tarteko. Xehetasun gehiago izan ahala ematen dizkizuegu atal honetan. Mendizaleak bal-

din bazarete, maiatzaren 30a zuen agendan borobiltzeko aukera behintzat iragarri dizuegu.

Pilotan eta herri kiroletan

Nafarroako herri kirol jokuetan gaztetxoak azken txanpan dira. Joan den igandean herrian egitekoa zen txapelke-

tako laugarren eta azken jardunaldia. Orohar guziaren berri, laburbilduz, heldu den alean emanen dizuegu. Momentuan herriko neska mutilek eginiko lana ikusita, seguru gaude proba konbinatuan zein soka tiran finalean batzundatu ikusiko ditugula. Suerte on!

Bertzalde, aintzine-

ko aleko kronikan zina egin bezala, herritar pilotariak eskualdetik kanpoko zein txapelketetan parte hartzen edo hartuko duten informazioa bildu dugu. Belateko binakako txapelketan, herritar gaztetxoek ez dute sailkapenean aintzina segitzen. Gazte mailan, Zizurko buruzburuko lau terdiko finala joan den larunbatean jokatzekoa zuen Beñat Mitxelenak Leitzako Iriarteren kontra. Joseba Madariagak eta Imanol Mitxelenak ere euren mailan txapelketa honetan aritu dira; eta orain bertze txapelketetan hastekoak dira, Elgetan adibidez.

Zizurko lehia bukatuta, Beñat Mitxelena eta Joseba Pikabea Usurbilen eta Iruen binakako jubenil mailako pilota txapelketan hastera doaz. Eta bi mutilok, Mitxelenak eta Pikabeak banakako Urretxuko pilota txapelketan partiduak egingen dituzte.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenetik ortziratera, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 948 133328 Faxe: 948 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
patxi@artekari.com

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

PIKABEA pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • 948 630240 - 948 631495 • BERA

OSASUNA

Menopausiari buruzko heziketa saioak eskainiko dira Doneztebeko Osasun Etxean

Apirilaren 6a baino lehen eman behar da izena

ttipi-ttapa

Doneztebeko Osasun Etxeak, Elizondoko Emakumearen Atentziorako Zentruak (EAZ) eta Ezpelura elkartearen laguntzarekin menopausiari buruzko osasun heziketaren saio batzuk antolatu ditu.

Malerrekako 45-55 urte bitarteko emakume eta bere bikoteari zuzenduta daude eta saio hauen helburu nagusia da menopausia garaia ahal den bezain ongi bizit dadila, autoestima eta norberare zainketak bul-

tzatuz. Emakumearen bizitzaren adin zail honetan zein aldaketa fisikiko eta psikiko gertatzen diren argitu, eta bi-denabarrean, aurreiritzi okerrak zuzentzen ere ahaleginduko dira apirilaren 20, 22, 27, 29 eta maiatzaren 4an, goizeko 10:30etatik 12:30etara Doneztebeko Osasun Etxean eginen diren saio hauetan.

Izen ematea Osasun Etxean berean egin behar da, 948 456001 telefonora deituz apirilaren 6a baino lehenago.



ARTXIBOKOA

Ezpelura emakume taldeak duela urte batzuk antolatutako afaria.

Elizondon jarriko dute DIUa hemendik aitzin

Nafarroako Parlamentuko Osasun Saileko bilkuran, Eak Elizondoko Emakumearen Harretarako Zentruan gertatutakoa salatu zuen. Elizondoko osasun zentruko ginekologoak ez zien Umetoki Barneko Gailua, DIU-a jarri nahi, ez du informaziorik eman nahi eta ez du antisorgailua jarria dutenen jarraipenik egin nahi. Bertzalde, Elizondoko osasun

zentruko ginekologoa Beratik Elizondoko arteko bakarria denez, eskualdeko emakumeek Iruñera joan behar dute DIU-a jarri nahi baldin badute.

Eak, Elizondoko osasun zentruan gertatzen dena salatu du. Medikuen kontzientzia-eragozpena ere aipatu du, eta kasu hauen aintzinean administrazio publikoak erantzun behar duela adierazi du, egoera honen onartzea UPN-PP alderdiari eragotziz.

Marxoaren 24an Elizondoko Emakumeen Harretarako Zentroak jakinarazi zuenez, hemendik aitzin DIUa bertan jarriko da. Orain arte Burlatan egiten bazuten ere, orain Burlatik etorriko dira ginekologoak Elizondora DIUa jartzera.

© 948631076 • BERA

Rafa
600 819 640
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA


HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

« **USOA** »
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

616 513 497
Piti
ESKABAZIOAK
C/Amestila
31010 DONEZTEBE (NAFARRA)

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
MOSKITERAK, PERTSIANAK MOTORIZATUAK,
VENECIANAK... **PVCzko LEIHO ETA ITXITURAK**

LESACA



Click
www.nvrr.nl

ARKUPEAK

Erretiratu elkartearen Gimnasia Eguna Berako kiroldegian egingen da apirilaren 18an

Urrezko Ezteiak eta 85 urtekoen besta ekainaren 25ean izanen da

ttipi-ttapa

Arkupeak erretiratu elkarteak urtero egiten duen Gimnasia Eguna leku aldaketa izanen du aurten. Aspaldiko urteetan Anaitasuna kiroldegian bildu dira gure herrietako jubilatuen gimnasia taldeak beraien erakustaldia egitera, baina oraingoan ez dira eskualdetik aterako, Berako Toki-Ona kiroldegian egingen baita erakustaldia apirilaren 18an, igandearekin.

Eguerdiako 12:00etan

hasiko da soinketa erakustaldia kiroldegian. Ondoren, 13:30etan autobusak aterako dira Zalaín eta Zubiondo jate-teeetara. Egun honetan, bertzeetan bezalaxe, bazkideak etortzen ahal dira, baina soinketa egin behar duten bazkideek ez dute deus ordaindu beharrik izanen. Bertze bazkideek eta nahiz eta bazkide ez izan soinketa erakustaldian parte hartzen dutenek 25 euro ordaindu beharko dute. Zalaín eta Zubiondo jate-teeetan 14:00etan

hasiko da bazkaria eta bietan menu bera izanen dute erretiratuek: urdaiazpikoa, pate, fri-toak, piper beteak, arrain zopa, legatza erromatar erara, sorbetea, azpoxuna guarnizioarekin, botil bat txanpain borts lagunendako, moka tar-te txokolatearekin, ura, ardoak, kafea eta kopa normalak. 17:00etatik 19:00etara dantzaldia izanen dute eta 19:30etan abiatuko dira autobusak etxera bueltan. Izen emateko epea apirilaren 1etik 8ra

irekiko da eta izen ematekoan jakinaraziko da autobusen irteera ordua.

Bertze aldetik, Arkupeak elkarteak gogorazi nahi du urrezko ezteiak eta 85 urte betetzen dituztenei omenaldia ekainaren 25ean izanen dela aurten. Egoera horretan daudenek eta parte hartu nahi dutenek, Arkupeako bazkide izan edo ez, maiztaren 20a baino lehen jakinarazi beharko diote herriko ordezkariari. Karneteko argazki eta beraien bizitzaren la-

burpen bat ere eman beharko dute, argitaratzen den liburuxkan agertzeko. Omendutako guzien bazkaria Arkupeak elkarteak ordainduko du, baina laguntzaileek beraiek ordaindu beharko dute, elkarteko bertze bazkideek bezala.



ARTXIBOKOA

Urteetan Anaitasuna kiroldegian egin baldin bada ere, aurten Berako Toki-Ona kiroldegian egingen dute gimnasia erakustaldia Arkupeako erretiratuek.

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

BEINTZAko OSTATUA
© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN


LARRALDEA SAGARDOTEGIA
Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKAROZ
© 948 452121



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA



H k z ntz n tu u un z t u z

rl n r t z lu tu mm t lu , l lun(rr z- t lu)
tu n z ntr r nt l rr .Gur h lu rt n r s t sun z
z h l z t uztzh ntu .z l un ll r f s n l tu t
r ur rts n l z lu s ntz n un z r llz l z nh ns n r
l s t sun t z l t t n t s z t n,

IZIT I-ZE ITZU 5 l z •EGUNE ZENT l z •E E ILIT ZI
TE PI UP ZI N L ET E INTZ EGIT U •ETXEZETXE U
NP - NTSULT •TELE-L GUNTZ •P L GI

m curs s sst ne l s, st l t t n l s g 12 l rtu u n n s,
s rtut t st n tut t sm .

r t l z rr s r g 21 999
www.r curs s sst ne l s, s



mm t lu z ntr r nt l k

MM MUTILV I MM I ET Err n l MM ELPIN Ch l l r n- n, Cu nc -n

GOIZUETA

Gazteek herrian bizi nahi omen dute

Herrian Babes Ofizialeko etxe bat erosiko lukete gehienek

Esteban AROTZENA

Ustez etxebizitzaren jabe ez diren 20 urtetik 40 urte bitarteko 145 herritarrei zuzendutako inkesta bat egin berria du Goizueta Bizirik herri plataformak. Biztanlegoaren jeitsieraren arrazoietakoa bat etxebizitzaren eskaintza eskasa dela uste du Plataformak, baina honen berri zehatzagoa izan asmoz inkesta egiteari ekin zion. Badirudi emaitzek arrazoiak eman dietela Goizueta Bizirik-ekoei, jasotako 74 erantzunetatik 63tan etorkizuneari ere herrian bizi nahia adierazten baitute gazteek, etxebizitza ba-

bestua erosteko prest agertzen direlarik horretarako. Ondorengo egunetan Udarekin bilitzeko asmoa du Plataformak inkestaren emaitzen berri korporazioak izan dezan.

Bai Euskarari Akordioa

Goizueta, Arano, Leizta eta Aresoko talde euskaltzaleek, Udalek, Euskara Zerbitzuak eta Kontseiluak bultzatuta Bai Euskarari akordioa herri hauetara ere ekartzea erabaki da. Euskararen normalizazioari beste bultzada bat ematea da kanpainaren helburua, eta herriota-



ARTXIBOKOA

Duela zazpi urte bukatu ziren Babes Ofizialeko pisu hauek. Geroztik ez da etxebizitza blokerik eraiki herrian.

ko gizarte eragileak (enpresak, elkarteak, komertzioak, taldeak, erakundeak...) izanen dira protagonistak. Eragile hauei akordioa egiteko gonbitea eginen zaie, eta ondoren, gonbitea onartzen dutenekin, euskararen normalizazioan urratsak egiteko konpromisoak zehaztuko dira. Konpromisoak

hartzten dituenak, Bai Euskarari ziurtagiria eskuratuko du.

Familia Euskaldunak

Udan euskara ikasten ari den jendea etxean hartzeko prest duden familia euskaldunak behar dira. Familiak bete beharreko baldintzez esan, egonaldia es-

kaintzen den hilabetean gutxienez hiru lagun etxean bizitzea ezinbestekoa izanen dela, eta ikasleak logela bat libre izan beharko duela. Horren truke, 570 euro jasoko ditu familiak. Izena emateko epea apirilaren 18an bukatuko da. Informazio gehiago Herriko Etxean edo Udal Euskara Zerbitzuan.

ARANO



ARGAZKIA: KONTXI

Azaroan hasi ziren probisionalki gimnasiako klaseak elkartean, hau da lehen aldia holako zerbait egiten dela herrian, izan ere lekuaren arazoa beti eman da. Orain udalaren goiko solairuan elkartzen dira hogeitaz bat lagun ariketak egiteko eta oso gustura daude gainera. Herriak beti faltan izan du leku itxi bat edozer antolatzeko, izan ere eguraldiaren menpe gelditzen zera lekuri izan ez zuten. Elkartean moldatu izan dira batzuetan, baina hainbat gauzentzat ez da leku egokia. Hemendik aurrera solairu hau dela eta gauza gehiago antolatu ahal izango dira.

ARESO

Zortzi domina eskuratu ditu Maitane Gereñok Gipuzkoako igeriketa txapelketan

Juana Mari SAIZAR

Maitane Gereñok Gipuzkoako txapelketan hainbat domina lortu ditu. 100 metro estilotan urrea, 100 eta 50 metro libreetan brontzea eta bost errelebotan parte hartuta, bi zilar eta hiru urre lortu ditu. Euskal Herriko txapelketan ere parte hartu zuen baina ez dago hain gustora han egindako lanarekin, urduritasuna zela medio. Hailere zilarra lortu zuen 50 metro libretan.

Bai Euskarari Akordioa

Herriko eragileen konpromisoa lortu nahi da euskararen normalizazioan aurrera egiteko. Urrats zehatzak egin ditzaten lortu nahi da, gaur egun erdara erabiltzen den egoera eta tokietan euskara erabili dadila. Azken batean, eguneroko bizitzan euskararen erabilera indartzea da. Akordioa sinatzen duenak euskararekiko konpromezua adierazten du.

LEITZA

3.294.456 euroko aurrekontua izanen du aurten udalak

Aralar eta EAk alde bozkatu zuten eta Larrainen proposamena ez zen aztertu

Mikel ILLARREGI

Leitzako udalbatzak, Aralar eta EA taldeetako zinegotzien aldeko botoekin 2.004. urteko aurrekontua orokorra eta bakarra onartu du. UPNko zinegotziek kontrako botoa eman dute batzarrean zehar aipatutako zalantzak eta aurkako iritziak argudiatuz (Musika Eskolarako dirulaguntza, zabor bilketaren aurrekontu bikoitza –Traperos de Emaus-herrikoak–, UEMAr eta Euskarari ematen zaion laguntza... Larrain taldeak aztertu ez zen beste proposamena aurkeztu zuen. Aurrekontua: 3.294.456,89 eurokoa izanen da.

Batzar berean, alkatearen dedikazioa eta horrekiko asignazioa onartu zen. Abenduez geroztik dedikazio osoa zuen alkateak, soldata eta guzti. Orain, martxoaren 1az geroztik uko egin dio horri, bere ohiko lanaz aparteko dedikazioa eskainiz, eta beste zinegotziek bezala, Batzar bakoitzeko 80 euro kobratuz.

Oinarritzko Zerbitzuaren egoitza

Udalak Patxi Arrazolan duen etxearen zesia Oinarritzko Gizarte Zerbitzuaren Mankomunitateari egin dio bi urtetako. Hemen, orain arte bezala, asistenta

beraren bulegoa, etxez- etxeko zerbitzua, drogomenpekotasunaren prebentzio zerbitzua eta babesturiko gizarte lanarena kokatuko dira. Apirilean etxea egokitu eta martxan jartzeko asmoa da. Mankomunitateak urtean udalari 2.160 euro ordaindu beharko dio.

Mendi irteera

Apirilaren 4an Urriola-Satrustegi eta Beriango mendizerrak Unanu zeharkaldia egiten da. Beti bezala izenak Maimur eta Astiz liburudendatan eman behar da. Nahikoa jenderik balego autobusa antola daiteke. Animatu.

Familia Euskaldunak

Udan euskara ikasiten ari den jendea hartzeko prest dauden "familia euskaldunak behar dira" kanpaina martxan da jada. Egonaldi hauek hilebetekoak izanen dira gutxienez eta bakoitzean lagun bakarra hartu ahal izanen da. Egonaldia eskaintzen den hilabetearen etxean, gutxienez, hiru lagunek bizi beharko dute eta ikaslearentzako logela bat libre izan beharko du. Familiak, horren truke 570 euro jasoko du. Izena emateko epea apirilaren 18an amaitzen da. Informazioa Euskaraz Zerbitzuan (948 510814).



UTZITAKO ARGAZKIA

"Maxurrenea Herrintzat" aldarrikatuz, martxoaren 20tik 28ra, Guraso Katoliko eta Jubilatuen Elkarrekin antolatuta, Leitzako argazkien erakusketa izan da ikusgai (bordak eta mugarrak). Honekin batera Joxe Migel Elosegik martxoaren 26an, hitzaldi bat eskaini zuen "Leitza atzo eta gaur" izenburupean.

ALEMANIATIK LEITZARA (4)



Gunther WOISCHWIL
Tübingen (Alemania)

Duela 10 bat urte Güntherrek Itziar Bigera ezagutu zuen Berlinen eta orduz geroztik, joan etorri ezberdinen ondoren, hona etorri zen bizitzera. Egun, bi umeen aita da eta hemen finko bizi bada ere, ez dio etorkizunari uko egiten eta "bizitza gutxitirako ez nuke hemen bizi nahi" dio. Noizbait beste tokiren bat ezagutzea gustatuko litzaike. Hona etorri aurretik Marokko aldera autostop-ez zihola, Donostian egin zuen geldialdia, hondartzan egun pare batez lo eginez. Horrela, jende gehiago ezagutu zuen eta Alemaniako bere helbidea eskaini zuen,

hara zihoan edonorentzat. Alemaniako hegoaldean dagoen Tübingen herrian jaio eta Calw-en hazi zen. Amaitu gabeko geografia ikasketak egin bazituen ere, zurgintzan titulua atera eta honetan hainbat lan egin zuen. Hontz etorrita giro oso desberdina ikusi zuen. Hasieran ezagutu zuen "martxak" txundituta utzi zuen, inon ez zuen horrelakorik ezagutu. Hala ere, "hemengo giroak (Euskal Herrikoa) gero eta diferentzi gutxiago du Europakoarekin". Aspaldion, gauzak de xente aldatu dira. Autobideak nonahi, zentro komertzial gero eta gehiago eta gero eta handiagoak... Gazteen eta familien aisegune bihurtu dira aipatutako zentro erraldoi hauek. "Yankien" antza gehiago somatzen da egun".

Hona etorritakoan eta ondoren, mentalitate "kuadrutuko" jende asko bizi dela ohartu da, "beste ohiturak, giroak, janariak... ezagutzeko ez duen jendea" maiz ikusi du. Horregatik, jende askorekin ongi moldatu da, bai

na beste batzuekin ez hainbeste. Arrazoi bat aurkitu nahian, askoren lotsa aipa daiteke, "timido" izatea, alegia. Dena den, jende "sinpatikoa" dela esaten du.

Hizkuntzaren aferan, "orain gaztekeraz nahikoa ikasi dut, baina euskaraz mintzatzea falta zait, nahiz eta gero eta gehiago ulertu". Semeekin alemanieraz hitz egiten du.

Bada, bai Donostian, bai Iruñean, Alemaniatik etorritako jende gehiago eta hauekin tarte biltzen da, "nahiz eta lehen gehiagotan bildu".

Lan eta egoera sozio-ekonomikoari buruz, "gero eta alde txikiagoa dagoela nabaria da. Han diru askoz ere gehiago irabazten da. Hemen ordu asko eta asko sartu behar da aurrera joateko. Dena den, estatu espainiarrean Aznarrek bultzatutakoa oso artifiziala da. Hormigoiaren ekonomia laster batean eroriko da".

Amaitzerakoan aipatzen digu, "urtean lau alditan gutxienez herri- itzultzen naiz familia bisitatzen. Etorkizunari ez dizkiot ateak ixten".

BAZTAN

Red Plena proiektuan sartu da Baztango Enplegu Elkartea

Lanpostu gehiago eta hobeak sortzea da proiektuaren helburua

ttipi-ttapa

Lanpostu gehiago eta kalitate hobeagokak sortzea helburu duen Baztango Enplegu Elkartea osatu zen apirilaren 18an Elizondon. Nafarroako Gobernuak, Europako Batasuna eta bertze zenbait erakunderen laguntzaz bultzatzen duen Red Plena proiektuan sartu den Elkartea honetako lehenetakaria Virginia Aleman Baztango alkatea izanen da eta Eva Ziaurritz izanen da koordinatzailea. Beraiekin batera Baztango elkarteko kide izanen dira Jose Maria Arraztoa (Eskiz Informatika), Julen Mitxeloren (LAB sindikatua), Pablo Mendiburu (Hiruak Bat landetxe elkartea), Mikel Azkarate (EHNE sindikatua), Isidro Herguedas (Bidelagun Elkartea), Agustin Olabe (Lekaroz-Elizondo Institutuko zuzendaria) eta Mikel Altuart nekazaria. Proiektuko kide dira, modu berean, Juan Mari Aleman



ARGZAKIA: ONDIKOL

Eva Ziaurritz Red Plena proiektuko koordinatzailea, Virginia Aleman Baztango alkatea eta Izaskun Abril Cederna-Garalur erakundeko agentea, Red Plena proiektuaren aurkezpenaren.

(Arteka Consultores), Jose Maria Astrain (Benito Menni ospitala), Jose Mari Arribillaga (ELA sindikatua), Patxi Mendiburu (UAGN sindikatua), Izaskun Abril (Cederna-Garalur) eta Osia Baraibar lan orientatzailea.

Berriki egindako iker-

keta sozioekonomikoa- ren arabera, 1996 eta 2000ko Baztan populazioa aztertuta, gazte guttiago eta xahar gehiago dagoela nabari da eta jaiotze tasa Nafarroako banazbertzeko- tik beheiti dago. Langa- betu kopurua, berriz, 150 lagun ingurukoa da.

Datu hauek, kezka- gariak ez badira ere, herria geldialdi batean dagoela erakusten dute. Errealitate hori kontuan hartuz, estrategia ego- kiak diseinatuz eta mar- txan jarritz baztandar gu- ztiendako lanpostuak sortzea izanen da el- karte berri honen xedea.

Elizondoko alkatea Aldudeko errepidearen kontra

Michel Eraso Eli- zondoko alkatea ez du Elizondo eta Aldu- de arteko errepide ber- ria egiteko «ez behar sozialik ezta ekono- mikorik ikusten», San Jose egunez eginda- ko batzarrean adiera- zi zuenez. Ingurume- nean izaten ahal duen eraginean sartu gabe, bere iduriz proiektuak «ez du lehentasunik eta ez da bideragarria. Duela mendi erdi Al- dudek mila biztanle zi- tuen eta orai 300, eta ez dut uste bidea ire- kitzeagatik komer- tzialki edo gizarte ar- loan hobekuntzarik izanen denik, ez Al- duderendako ezta Eli- zondorendako ere». Erasoren ustez, Izpe- gin barnako harat-ho- natak indartu eta Dan- txarinea hurbildu egin behar ditu balleak: «Egun batzuetan 10.000 auto ailegatzen dira Dantxarineara eta bakar bat ere ez da Elizondora hurbil- tzen».





ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO

© 948 581807 • 948 581853



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA



BAZTAN

2.650.213 euroko dirulaguntza izanen da azpiegitura lanetarako

Ur-hornidura sareak eta bideak moldatzeko erabiliko dira

Itipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamenduak

2.650.213 euroko dirulaguntza emanen dio Baztango Udalari, Azpiegitura Planaren barnean sartuak dauden lanak egiteko.

Zehazki Elizondoko Arla auzoa, Amaiur, Erratzu, Elizondo eta Anizko ur-hornidura eta saneamendu lanetarako 771.518 euroko dirulaguntza emanen du, 1.252.051 euroko aurrekontutik %61,62a. Baztango Udalak proiektu independentien aurkeztu ditu leku bakoitzerako. Altero Catalan kontseilariaren berte agindu batek, ondokirika horietan egin behar diren zolaberritze lanetarako dirulaguntza zehazten du. Honela, 1.387.467 eu-

roko aurrekontu batetik 806.861 euroko dirulaguntza emanen da, %58,15a.

Azpiegitura planaren barnean sartutako bertz lan bat, Elizondo eta Elbeteko herriguneetatik barna igarotzen den N-121-B zeharbidearen moldaketa da. Zehazki, ur-hornidura sarea eta ur-zikinen eta euritako uren saneamendu sarea berritzea, argiteria eta zerbitzu ezberdinen kanalizazioa sartuak daude, baita zeharbidearen eta alboetako espaloien zolaberritze osoa. Horretarako 638.718 euroko dirulaguntza eman zaio Baztango Udalari, 948.693 euroko aurrekontu batetik, %67,32.

Azkenik, Nafarroako Gobernuak Arizkun, Elizondo, Lekaroz, Irurita, Arraioz, Berroeta,



ARGAZKIA: ONDIKOL

San Jose egunean jokatu ziren Elizondoko Antxitonea trinketeko paleta txapelketen finalak. Hainbat ikusle bildu ziren emozioa falta izan zitzaizen finalak ikusteko: bigarren mailan Poteto Iribarren eta Kani Galarregik irabazi zieten Jon Franzesena eta Mikel Ballarenari. Lehen mailan, Manolo Olabe eta Jose Mari Lertxundik irabazi zieten Migueltxo Pruaño eta Unai Meokiri.

Amaiur, Erratzu, Elbete, Gartzain, Ziga eta Anizko baserrietarako bideak moldatzeko lanak lagunduko ditu. 681.795 euroko aurre-

kontu batetik 433.116 euroko dirulaguntza emanen du, %63,52. Bideetan ormigoia edo galipota botako da. Guzira hameka kilometro bi-

de moldatuko dira lehendabiziko fasean, 7.000 metro koadrotan galipota eta 23.383 metro koadrotan ormigoia botako delarik.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
© 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • ELBETE

asnáp me
servicio integral de la propiedad y gestión empresarial

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Garraioak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igeltseroak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZTIAK
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioan asessoramendua
- Dirulaguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aldurpenak

DONOSTIA
Rúa San Martín, 4 lekuak
Tele: 948 431823 Telefax: 948 431418
servicio@asnapyme.com

ELIZONDO
Santago, 51 lekuak
Tele: 948 580 504
elizondo@asnapyme.com

LEZAMA
Santago, 3 lekuak
Tele: 948 562338 Telefax: 948 562340
lezama@asnapyme.com

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
AMAIUR • © 948453060

SENPERE

Turismo bulegoak egoitza berria izanen du haurtzaindegi ohian

Ezkerra nagusitu zen Akitaniako eskualdeko bozen lehen itzulian

Franc DOLOSOR

Elkartetxean kokatua den turismo bulegoak egoitza berria izanen du ondoko egunetan. Bulegoak haurtzaindegi ohian irekiko dituzte pilota plaza ondoan. Egoitza berri hortan xistera eta pilotaren ekomuseo bat irekiko da. Aldaketa horren berri eman zuten turismo bulegoko arduradunek berriki egin duten biltzar nagusian. Beren erranetan, iazko uda hastapena untsa pastu zen, uztaila tristetia izan zen eta gero agorrian udatar gehiago hurbildu zen gure herrirat. Turismoaren gaitasun ekonomikoa beheiti egin du orokorkijende eta sartze guttiago izaten baita azken urte hauetan eta bereziki iaz. Kontsumoa beheititu da alde guzietan eta hunen ondorioz turismo bulegoak diru galtzeak izan zituen iaz. Konduak xuxentzeko herriko etxe-

ko dirulaguntza eta kotizazioak emendatuko dira. Iazko Kaskoz-kasko mendi ibilaldiak arrakasta gaitza izan baitzuen, aurren ere ibilaldi bera iraganen da uztailan.

Akitaniako bozak

Akitaniako eskualdeko bozetan UMPko eskuindarrak eta UDFko zentristak bi listetan abiatu ziren Bordeleko gobernamentuaren giderak hartzeko, eta horrek onik izan zuen ezkerrentzat lehen aldikotz nagusitu baitzen herrian lehen itzulian. Bayrouk baino lau puntu gehiago izan zituen Rousset-k bainan bigarren itzulian, elgarturik, eskuina nagusitu zen berriz Senpereko hauteskunde guzietan gertatzen den bezala. Abstentzioa izan zen senpertar gehienek egin zuten hautua.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Peio Aincy eta Robert Comat Amorroin kofradiko adiskide izendatu zituzten apirilaren 14ean.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Akitaniako bozetan abstentzioa nagusi lehen itzulian %42rekin.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA
URDAZUBIN



300 m² perfume markarik ezagunenskin
Usain-onak, kosmetikoak...

Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**



ZOANSA
SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

AZKAIN

Bollendorfean anaitasunak hogeita bortz urte bete ditu

Udazkenean hitzordu berri bat izanen dute, oraikoan Azkainen

Angela eta Xamo

Bollendorf eta Azkain arteko anaitasunak bere 25 urteak ospatzen ditu aurten. Oroitarazteko, bi herri horiek 1979 urtean harremanetan sartu ziren. Geroztik, elgarretarazteko parada bi aldiz urtero antolatzen dute, Azkainen baita ere Bollendorfen.

Aurten beraz, otsailaren bukaeran 50 herriar gan dira Bollendorferat aste bat pasatzerat; heien artean, JL Laduche auzapeza, herriko etxearen izenean, eta bixtan da anaitasun komitearen kideak.

Bi herrien arteko anaitasunaren 25 urteak ospatzeko, 200 jende bildu dira besta eder baten inguruan. Hautesiek azpimarratu duten bezala mintzaldi desberdinetan, bi herrien arteko harremanak azkartzen dira urtero, batez ere anaitasun komiteek egiten duten lanarengatik. Euskal herriko herrietan bezala, ihauteriak bestatzen di-



Argazkia: Xamo

Bollendorf eta Azkain arteko anaitasunaren taldea.

tuzte han ere. Bidaia horren bidez, egun bat pasatu dute Köln hirian, ihauteri famatueta parte hartuz. Bi herriak ez dira hortan egonen. Hitzordu berri bat hartu dute udazkenean, Azkainen oraikoan.

Diru laguntza Orduan! elkartearentzat

Herriko kontseiluan, elkarteak egindako laguntza eske bati buruz, Herriko Etxeak hitzartu

du 200 euro diru laguntza emaita, Orduan! elkarteak 1901 legeko elkarte bat delako, gizonen aldeko helburuarekin. Laguntza hori bozkaturia izan da 17 boza alde eta 3 boza kontra.

Momentu berean mozio bat bozkaturia izan da. Herriko kontseiluak adierazten du desiratzeko duela euskal presoak bere etxeko presondegira hurbilean izan behar dela. Momentu berean oroitarazten du

Aratz Gomez Villabonan preso dela, hemendik 4 ordu terdi bide badela, eta gehienik 4 pertsona bisita bat baduela astean behin. Epaitua izan da duela gutti 18 urterako eta urruntasun arrisku bat badu.

Orduan! elkarteak gogoratzen du hilabetezko azken ostiralaren biharamunetan, larunbat eguerditan, elkarteak antolatutako direla herriko plazan egotera hori salatzeke.

FLASH

Mus txapelketa

Plazan ostatuak txapelketa bat antolatu zuen otsailean, kantonamenduko txapelketan parte hartzeko helburuarekin, 26 talde izan ziren. Horatik, 5 bikote atera dira, kantonamenduen lehen itzulian aritzeko: Laduche Jon-Jolimón Xabi; Jauregui Jeannot-Ibarburu Paskal; Gonzales J. Michel-Urdampilleta Xan; Solorzano Pantxika-Daguerre Ihintza; Mascotena Battitt-Sanchez Paskal. Bi talde kalifikatuak izan dira bigarren itzuliarentzat: Daguerre-Mascotena, Solorzano-Daguerre. Finala Bazko astelehenan iraganen da Hazparnen.

Pilota

Marc Berasategui buruzburuko Euskal Herriko Ligaren erdi finala irabazi du Cachenauren aurka. Finala Lekorne herrian izanen da apirilaren 4an, Alain Hequiabehereren kontra.

Errugbia

Azkaingo taldearentzat sasoina gaizki bukatu da aurten. Martxoaren 21an Pomares herriaren kontra galdu dute 15-21. Kakoak armarioan sartzeko tenoria etorri da. Heldu den urtean 3. mailan arituko dira, erran nahi du maila bat galtzen dutela.



ARANTXA CIAURRIZ IRAIZOZ
Arkitektoa

JOSEBA CIAURRIZ IRAIZOZ
Arkitekto Teknikoa

Santiago, 55 - 2. B • 31700 ELIZONDO NAFARROA
Tel. 948 581 931 - 629 50 31 25
Fax. 948 581 854
e-Posta: arantxaci@terra.es

Okindegia

Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIAN

- Ogi artisaia, egunkaria eta txapeta
- JATETXEAN
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Especialitate parillan erretako jakietan

Orduko industrialdia • Tfnoa: 948 45 24 03 • 31713 ARIZKUN

SARA

Eskuina nagusi Akitaniako hauteskunde lehen itzulian

Herriko Etxeko ostatuko mus txapelketaren finalak jokatu ziren

Xan eta Saski

Akitaniako hauteskundeetako lehen itzulian, Sarako biztanleagoak eskuinari duen atxikimendua erakutsi zuen. Alderdi eskuindarrek bozka kopurua ezpadute emendatu ere, usaiako bozka kopuruetan egon dira. Hala nola UMP eskuina moderatuak 160 bozka bildu zituen, UDF eskuin zentralistak 146 bildu zituen, FN eskuin muturrak berriz 46 bozka. Eskuinekaldean nabarmenki gibelerat egin duen alderdi bakarra ihiztariena izan zen, CPNT. Usaian 100 bozka baino gehiago biltzen dituen alderdi horrek oraingoan 92 botzekin gelditu zen. Ezkerrari dagokionez, PS atera

zen lehena 166 botzekin. Komunistek ere nabarmenki gibelera egin zuten 13 botzekin. Pentsa daiteke lehenago bozka komunisteri ematen zutenek oraingoan LCR-LO ezker muturreko koalizioari eman dutela. Horiek 37 bozka bildu zituzten. Bozka abertzaleari dagokionez, AB eta Batasunak «Euskal presoak Euskal Herrira» esku paper bat bozkatzera deitu zuten. Horietako 47 zenbatu ziren. Bozkatzeko ahalmena zuten %45a baizik ez zuen bozkatu.

Errugbia

Multzoetako azken matxan saratarrek ez zuten indar haundirik atera behar izan, Zibu-



ARGAZKIAK: XAN

Urte guziz bezala, finalen egunean Herriko Etxeko ostatuko etxeko andereek, Maixan eta Verok zikiro bat antolatu zuten mus txapelketan parte hartu zuten guzientzat martxoko bigarren larunbatean. Goizean finalak jokatu ziren. Lehen mailan, Jean Marc Azpirot eta Mixel Etxeberri, Jamatit Ameztoi eta Bittori Etxeberri menean hartu zituzten. Txapeldunek 500 euroko saria irabazi zuten eta txapeldun ordeek otruntza bat Lastiritegian. Bigarren mailan, Dibar Mixel eta Marise, Frederic Barnetxe eta Jerome Pradere irabazi zituzten. Horko txapeldunek bildotxa bat irabazi zuten. Pettan Elizalde eta Beñat Etxegaraiek erre zuten zikiroa jan zuten guziek eta arratsalde guzia dantzari eta kantuz pasatu zuten ostatuan berean. Argazkian, Jean Marc Azpirot eta Mixel Etxeberri txapeldunak Herriko Etxeko ostatuko andereekin.

ruko taldea jokalariekasarekin etorri baitzen Animaineako zelaira. Beraz basurdeek matxa aitzinetik irabazia zuten. Azken aintzineko matxan aldiz, saratarrek errexgaldu zuten Arrangoitzeren kontra 18-0. Ez zuten matxa txarra

egin, baina puntuak hartzeko aukerak ukan zituztelarik huts egin zuten, bai eskuz eta bai ostikoz. Halere, final erdietarako txartela lortu dute multzoko hirugarren tokian sailkatuz. Final erdietan multzoko bigarrenaren kontra ari-

tuko dira, Landesetako Hossegarren kontra.

Ataun-Sara

Ataun eta Sararen arteko anaitasuna egiten ari dela eta apirilaren 3an Ataungo hainbat elkarte Sarara etorriko dira egunaren pasatzera.



MENDIAK

Pinuarentzat dirulaguntzarik ez izateak kezkatzen ditu *Lau Herrietako* alkateak

Nafarroako Gobernuko Ingurumen kontseilariarekin elkartu ziren martxoaren 16an

ttipi-ttapa

Jose Andres Burgete Nafarroako Gobernu Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuko kontseilaria martxoaren 16an elkartu zen Donezteben Bidasoa-Berroarango edo *Lau Herrietako* mendietako junta administratioboarekin. Juntako kideekin bilera egin ondotik *Lau Herrietako* mendiak bisitatu zituen kontseilariak, Doneztebe, Sunbilla, Narbarte eta Elgorriagako ordezkariekin batera. *Lau Herrietako* mendiak 3.500 hektarea hartzen dute eta aunitz erre egin ziren 1989ko sute haundian. Orduan, herriotako diru iturri nagusietako bat hondatu zen eta orain alkateak kezkatuak daude inguru honetan oraindik sobera hedatu ez den pinuen eritasun batekin. Eritasun honengatik, Nafarroako Gobernuak ez du dirulaguntzarik ematen insiginis pinuarentzat.



ARGAZKIA: DIARIO DE NAVARRA

Jose Andres Burgete Ingurumen kontseilariak, Doneztebe, Sunbilla, Narbarte eta Elgorriagako udal agintariekin eta mendizainekin batera oihanberitutako mendiak bisitatu zituen.

Hamabortz urte hauetan inbertsioak egin dira plantazioetan eta pistak egiten, orduan galdu zena berreskuratuz, baina *Lau Herrietako* Junta une zaila pasatzen ari da. Tesuinguru honetan etorri

zen kontseilariaren bisita.

MILIOI BAT PINU SARTU

Jose Miguel Galarrigi Elgorriagako alkateak eta txandan juntako presidente denak erran zuenez, sutearen

ondotik bertako landareak eta milioi bat pinu sartu dira, zuhaitz hau abudo hazi eta Herrirentzat diru iturri baita. Pinuak 30 edo 40 urtetan moztzen dira, baina aitzinetik egiten diren garbiketak eta entresa-

ka edo bakanketen bidez ere dirua ateratzen dute Udalek. Baina pinuaren dirulaguntzak kentzerakoan herriek ezin dute garbiketak eta bakanketak egiteko behar den dirua ordaindu. Bidasoa-Berroaranean oraindik ez da sobera hedatu eritasuna, baina zabaltzen baldin bada hondamendia izanen dela uste dute alkateak.

Burgete kontseilariak adierazi zuenez, eritasunaren ondorioak murrizteko soluzioak bilatzen saiatuko dira. Joan den urteko otsailean hasita 120.000 euroko inbertsioa egin omen du Departamentuak garbiketara, bakanketara eta azpiegitura lanetan eta bertze 117.000 euroi bideratu dira mendiaren egoera hobetzeko. Oraindik ez ezagutzen eritasunari dagokionez, 3 edo 6 hilabetetan datu zehatzak biltzea espero dute, oraindik ez baitakite nondik datoren eta ez dauka tratamendurik.

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

ERREKA DE
OSTATUA
PLATER
KONBINATUAK
PINTXAK
BOKATIAK
TFNOA: 948 630 754 6222

TEL K
K MISET K
ISE
K MISKE
N HI UZUNK U U, NEU I ET ISEINU ERN
T I - F X 3 45 21

SAROBÉ
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

IKASTAROAK

Hainbat ikastaro antolatu ditu Cederna-Garalurek

Doneztebeko Juansenean eta Alkaiagako Bidasoako Enpresa Zentroan eskainiko dira

ttipi-ttapa

Aktiboan dauden edo azken urte honetan Nafarroan lan egin duten autonomoei eta bertzeen konturako langileei zuzenduta doako ikastaroak antolatu ditu Cederna-Garalurek erakundeak, Formakuntza eta Gizarte Ikasketen Institutuaren eta UGT sindikatuaren laguntzaz.

Doneztebeko Juansenean, 40 orduko erakusleho-apainketako ikastaroa eskainiko da apirilaren 19tik maiatzaren 14ra, astelehenetik ortziralerara,

14:30etatik 16:30etara.

Maiatzaren 17tik ekainaren 4ra, berriz, leku berean bezeroentzako arreta eta kalitatea ikastaroa emanen da, 30 ordukoa. Hau ere astelehenetik ortziralerara eskainiko da Juansenean, 14:30etatik 16:30etara.

Maiatzaren 3tik 28ra, Cederna-Garalurek Lezakako Alkaiaga industrialdean duen Bidasoako Enpresa Zentroan Contaplus eta Facturaplus ikastaroa emanen da, 40 ordukoa, astelehenetik ortziralerara,



Erakusleho-apainketarako ikastaroa izanen da eskainiko den lehena.

18:30etatik 20:30etara.

Leku berean, ekainaren 1etik 22ra, 40 orduko Internet ikastaroa emanen da, astelehenetik ortziralerara, 18:00etatik 20:30etara.

Bidasoako Enpresa Zentro berean, ekainaren 1etik 28ra, merkataritza-kudeaketa, marketing eta salmentak 40 orduko ikastaroa emanen da astelehenetik or-

tziralerara, 14:30etatik 16:30etara.

TALDE BAKOITZEAN HAMABORTZ LAGUN

Informazio gehiagorako edo izen emateko Cederna-Garalureraredeidu behar da, 948 625122 telefonora eta Begoñataz galdetu. Bertzenaz, 948 625132 fax zenbakira edo bidatsoa.admon@ceder-

na.es helbide elektronikora idatzi. Taldeen guttueneko kopurua 15 lagunekoa izanen da.

Ikastaroa hauen finantzaketari dagokionez, %45 Europako Gizarte Fondotik, zehazki "3 Helburua" Programa Eragiletik etorriko da eta Inafre erakundeak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ere diruz lagunduko dute.



Begoña

LARRALDE IBARROLA

2004ko martxoaren 13an hil zen
Arantzan, 44 urte zituela.

Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gainetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.

Bere familia.



Joseba Andoni


URDANITZ ETXEBERRIA

1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra

II. URTEMUGA

Udaberriak bizia ekarriz Zure askatasun modua gogoratzen du Zure ametsak buruan izanik Zure indarra guria egiten dugu.

Gurasoak eta senideak



Visitacion

ITURBIDE ORDOKI

ARGATA-GARAIA BASERRIA

Igantzin hil zen 2004ko martxoaren 16an, 87 urte zituenean

Hartu ditugun dolumin adierazpenak eskertzen dizkizuegu.

Bere familia.



EZKONTZAK

Luis Maria Ariztegi Erasun eta **Idoia Teilletxea Iribarren**, Ituren eta Leitzakoa, martxoaren 6an.

Jose Maria Zubillaga Goienetxea eta **Catalina Astibia Billabona**, Leitzakoa, martxoaren 20an.

Joseba Apezetxea Tapia eta **Pake Franzesa Zubillaga**, Lesaka eta Elizondokoa, martxoaren 20an.

Juan Miguel Matxikote Altzuguren eta **Nekane Zoco Susperregi**, Alkaiaga eta Lesakakoa, martxoaren 20an.

Juan Manuel Altzarte Magirena eta **Miriam Sanzol Barea**, Oronoz-Mugairi eta Iruñekoa, martxoaren 20an.

Juan Carlos Lekuona Arretxea eta **Natalia Elizondo Etxegia**, Oitz eta Urrozkoa, martxoaren 20an.

Nikolaus Gerhard Becker Zapirain eta **Isabel Alegria Sanchez**, Azkaingoak, martxoaren 19an.



SORTZEAK

Ainhoa Aranburu Fernandez, Leitzakoa, martxoaren 9an.

Joanes Oartzun Aldaia, Leitzakoa, martxoaren 17an.

Julen Urdangarin Taberna, Lesakakoa, martxoaren 17an.

Laura Urtxulutegi Antxordoki, Erratzukoa, martxoaren 4an.

Unai Gallego Leizagoien, Elizondokoa, martxoaren 7an.

Oihan Altzarte Aranburu, Erratzukoa, martxoaren 6an.

Iker Azkarraga Mendiburu, Elbetekoa, martxoaren 4an.

Patricia Alves Bidart, Elizondokoa, martxoaren 14an.

Unai Garro Unson, Berakoa, martxoaren 10ean.

Ixone Elizalde Mitxelena, Zubietakoa, martxoaren 17an.

Naiara Otxoteko Perugorria, Etxalarkoa, otsailaren 17an.

Oihana Angelina Chabert, Sarakoa, martxoaren 6an.

Ainhoa Darancette, Azkaingoa, martxoaren 10ean.

Alexia Marjorie Lana Ibarra, Azkaingoa, martxoaren 21ean.

HERIOTZAK

Escolastica Habans Inda, Berroetakoa, martxoaren 10ean, 97 urte.

Pakita Iturralde Petite, Berakoa, martxoaren 11n, 83 urte.

Santos Goienetxe Bereau, Lesakakoa, martxoaren 11n, 70 urte.

Margarita Salaburu Baleztena, Elizondokoa, martxoaren 12an, 95 urte.

Matea Aleman Aleman, Lekarozkoa, martxoaren 13an, 69 urte.

Begoña Larralde Ibarrola, Arantzakoa, martxoaren 13an, 44 urte.

Alejandro Etxeberri Etxenike, Erratzukoa, martxoaren 13an, 78 urte.

Felicitas Mikelajaregi Altzugarai, Lesakakoa, martxoaren 14an, 82 urte.

Sor Angeles Lopez Martinez, Elizondokoa, martxoaren 16an, 78 urte.

Visitacion Iturbide Ordoki, Igantzakoa, martxoaren 16an, 87 urte.

Serafin Garcia Montero, Lesakakoa Arrasaten, martxoaren 17an, 50 urte.

Mª Mercedes Sarratea Inda, Donamariakoa, martxoaren 17an, 70 urte.

Ramon Ripa Olabe, Iruritikoa, martxoaren 18an, 93 urte.

Jose Antonio Erasun Andiarrena, Legasakoa, martxoaren 19an, 83 urte.

Bonifacia Larralde Elizagoien, Elizondokoa, martxoaren 19an, 85 urte.

Wenceslao Lopez Moreno, Berakoa, martxoaren 22an, 59 urte.

Maria Concepcion Indaburu Sanzberro, Etxalarkoa, otsailaren 26, 87 urte.

Jean Pierre Etxeberri, Sarakoa, martxoaren 11n, 81 urte.

Jeanne Leizagoien, Sarakoa, martxoaren 8an, 87 urte.

Joseph Inda, Azkaingoa, martxoaren 23an.



Pakita

ITURRALDE PETITE

Manuel Aranibarren alarguna

Beran hil zen 2004ko martxoaren 11n, 83 urte zituenean

Hartu ditugun dolumin adierazpenak eta gure amaren alde eskeini dituzuen otoitzak eskertzen dizkizuegu.

Bere familia.



Manuel

ELIZALDE AMIGORENA

Manuel maitia
etxetik joan ziran oso gaztia
eta gazterik bukatu zaizku bizia.
Bihotza haundia
gaur taupadarik gabia
dena bertzintzat
etzenuen ezer nahi zuria
Zure bihotzaren zabaltasuna
egongo da Ameriketan eta Euskal Herrian
zu egongo zaren bezala gure bihotzian.
Agur osaba, agur anai maitia.

**1942ko Urriak 14 Iturenen
2004ko Martxoak 9 Brighon**



**Joxe Manuel adiskideari
Arraiozko herriak**

Gizon xaloea eta jatorra
herri osoan laguna
loreak ihintza baino gehiago
denok maitatzen genduna
zein haundia zen zure lagunei
eman zenun maitasuna
baina aunitzez haundiago da
utzi diguzun hutsuna.

DATUAK...

• Inaxio Errandonea da Frontis pilota enpresa berriaren bultzatzaileetako bat. Pilotari ez ezik kirol arduradun ere izanen da enpresa honetan, Barberito VI eta Ariznabarretarekin batera. Sebastian Oartzabal izanen da zuzendari komertziala.

• San Jose egunean egin zuen aurkezpena enpresak, Tuterako Hiria torneoko finalerdiekin. Canal 6 telebistak eman zituen partidak.

• Badiola eta Inaxiok berak irabazi dute torneo, finalean Barberito VI eta Mendiari 22 eta 15 irabazita.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Inaxio ERRANDONEA *Frontis enpresakoa*

«Maila apalago batean bada ere pilota enpresa serioa egitea da gure helburua»

Aitor AROTZENA

Gauegun pilota profesionala kontrolpean duten bi enpresen itzalean bere lekua hartzeko intentzioarekin sortutako enpresa da Frontis, bultzatzaile nagusietako bat izan den Inaxio Errandoneak erran digunez: «Momentuan errealistak izan behar dugu eta esku pilota profesionalaren mundua bi enpresa haundien artean kontrolatua dagoela ikusten da. Gu aspaldian gabiltza pentsatzen zer egingen ahal den, nola antolatzen ahal garen eta azkenean erabaki dugu Nafarroa aldean pilota enpresa sortzea. Hor pilotari beterano batzuk gaude sartuta, kirol arduradun gisara Karmelo Ariznabarreta, Barberito VI eta nerone ibiliko gara eta gurekin batera Fernando Arretxe, Alustiza, Jabier Errandonea, Gorriti, Badiola III, Mendi eta Elola arituko gara pilotan momentuz. Epe motzera gazte bat edo bertz hartzekoa da. Guk gure konpetiziorik ez dugu antolatu oraindik, ez baitugu astirik izan, baina udako

«Momentuan gure asmoa ez da Aspek eta Asegarcek antolatutako konpetizioetan parte hartzea, baina denborarekin ikusiko da, bideak erakutsiko du nora joan»

partidak kontratatzen ari gara hainbat herrian. Proiektu nahiko polita izanen da». Momentuan ez dute Aspe eta Asegarcek hartzen dituzten frontoi haundietan lehiatzeko aukerarik ikusten eta herri tikietaara ailegatu nahi dute. «Momentuan gure merkatua bertz bat izanen da. Aurrekontu aldetik, enpresa haundiak baino aunitzez tikiagoarekin ibiltzen gara, eta normalean herri tikieta ibiliko gara. Enpresa haundietatik aparte enpresa tikiak antolakuntza aldetik ez dira ongi ibiltzen eta gure helburua gure mailan enpresa serio bat egitea da. Jakina, enpresa haundietatik beheitiago izanen

gara, baina haunditzeko ilusioarekin gaude». Txapeldun haundiak izandakoak beteranoak badituzte koa droan, Inaxio bera, Arretxe, Alustiza... baina jende gazteari ere lekua egin nahi diote: «Koadro motxa dugu, baina horrek badu bere arrazoia ere, nahi dugulako hasi ikusiz zer martxa dugun, herrietan zer azeptazio dugun... Azken urte terdi edo bi urteetan ni ibili naiz herriz herri eta herri tikieta ongi hartu gaituzte, beraz oinarri bat badugu. Gazte batzuekin solastu dugu eta gure ilusioa izanen litzateke afizionatu mailako pilotariren bat gurekin etortzea. Profesionaletatik ere etorri nahi duenak ateak zabalik izanen ditu, beti ere zer mailako pilotaria den ikusiz. Uda partean partidu aunitz izaten direnez, afizionatu mailako pilotari batzuekin ere harremana izanen da. Bideak berak erakutsiko digun nora joan». Bi enpresa haundiak alde batera utzita, antolakuntza aldetik Frontis onena izanen dela iruditzen zaio Errandoneari.

PILOTA

Aste hondar honetan abiatu da Baztan-Errekako Laxoa txapelketa

Hameka talde ari dira eta finala Arraiozen jokatu da abuztuaren 1ean

A.A.

Aste hondar honetan abiatu da Baztan-Errekako XXV. Laxoa txapelketa. Iaz bezalaxe, hameka talde arituko dira txapelketa honetan, baina aurten aurkeztu ez den Elizondoko taldearen ordez Doneztebek gazteekin osatutako laugarren talde bat plazaratuko da. Hameka talde horiek bi multzotan banatu dira, joan den urteko txapelketako finalerdietako bina talde multzo bakoitzeari sartuz. Honela, lehendabiziko multzoan Doneztebe A eta Arraioz Arekin batera, Arraioz B, Irurita C eta Oitz A izanen dira. Bigarren multzoan, berriz, Irurita B eta Arekin batera, Oitz B eta Doneztebe B, C eta D izanen dira. Lehen faseko partidak larunbatetan 17:00etan eta igandetan 11:30etan jokatu dira. Puntuatzeko orduan aldaketak izanen dira aurten, konpetibitatea indartu asmoz, paxaka txapelketan egin bezala. Hiru puntu banatuko dira partida guzietan. Partida galtzen duenak bortz joku edo guttiago egiten baditu hutesan geldituko da eta irabazleak hiru eramanen ditu. Galtzaileak sei joku edo gehiago egiten baditu, aldiz, puntu bat irabaziko du eta irabazleak bi. Multzo bakoitzeko lau lehendabiziko taldeek final laurdenak jo-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Arraiozko Arizti elkarteak egin zen Laxoa txapelketako aurkezpena. Ezkereskuin, Josu Prim (Laxoa Elkartea), Jabier Barriain (Nafarroako Pilota Federazioa), Pedro Agerrebere Arraiozko alkatea, Tiburtzio Arraztoa (Laxoa Elkartea) eta Luis Miguel Mortalena Arraiozko pilotaria eta Laxoa Elkartekoa.

katuko dituzte ekainaren 20an, 27an edo uztailaren 4an. Finalerdiak uztailaren 11n, 18an edo 25ean jokatu dira eta final nagusia abuztuaren 1ean izanen da, Arraiozko plazan. Denetara, txapelketak irauten duen lau hilabete hauetan, 64 partida arituko dira.

Txapelketa nagusiarekin ez da akitzen, ordea, Laxoa Elkartek prestatu dituen ekitaldiak, martxoaren 24an Arraiozko Arizti elkartearen egindako aurkezpenarekin jakinarazi zenez.

Txapelketa nagusia akitu bezain laster, Baztan-Errekako Gazte txapelketa hasiko da. Irai-la eta urrian jokatu da,

Nafarroako Kirol Jolasen barnean. Negu partean sarturik, plaza librelik frontoira sartuko dira, seigarren paxaka txapelketa jokatzeko.

Joan den urteko apirilean Pilota Joko Zuzeneko bigarren topaketa egin zen Valentzian eta bertan parte hartu zuen Laxoa Elkartek. Gero, uztailaren, Elizondoko plazan Klubaren arteko Joko Zuzeneko lehen txapelketa jokatu zuten valentziarren aurka. Aurten klubaren arteko bigarren txapelketa jokatu dute. Beraz, ordain dela urte aunitz Laxoa Elkartea eta Valentziako klubaren artean sortutako harremanekin segituko dute.

HONDARRIBIAN ERE LAXOAN HASI DIRA

Valentzian Gazteen arteko luzeko txapelketa parte hartuko dute uda honetan hemengo pilotariak Nafarroako selekzioarekin. Beraiekin batera, Valentzia, Alkante eta seguruenik Gipuzkoako selekzioak parte hartuko dute. Jakina da Villabona eta Zubietan erreboteari aritzen direla, baina Tiburtzio Arraztoak jakinarazi zuenez, «*Hondarribiako pilota eskolan hasiak dira aurten laxoan, guanteak eta botarria badute. Aurten ez dute laxoa txapelketan izenik eman, baina abuztu hasiko direla iruditzen zaigu*».

Laxoa Elkartek 25 urte bete ditu aurten

1980. urtean sortu zen Laxoa Elkartea, beraz, aurten hogeita bortz urte bete ditu. Herriko bestetan eta egun seinalatuetan doi-doi jokatzen zen pilota modalitate zaharra berpiztea zuten helburu eta Baztan-Errekako lehendabiziko laxoa txapelketa antolatu zuten urte berarekin. Pixkanaka indartzen joan da laxoa txapelketa, gazteen arteko txapelketa ere antolatu da azken urteetan eta seigarren paxaka txapelketa jokatu da denboraldi honetan. Hasierako helburu hura ederki bete dute, beraz.

Aurten, 25. urtemuga hori ospatzeko ekitaldi bereziak antolatu nahi ditu Laxoa Elkartek. Oraindik deus zehazturik ez badago ere, herriz herriko erakusketa, hitzaldiak, bilerak eta erakustaldi partidak egin nahi dituzte ekainetik urrira.

Laxoa Elkarteko Josu Primek jakinarazi digunez, burutan duten bertzeko ospakizun bat urte guzietako txapeldunak biltzea eta elkarren kontra partidaren bat jokatzen da «*Jesus Juanena da txapeldun izandakoen artean bizi ez den bakarra. Bertzeko guziak biltzea ez da errexa, baina aski polita izanen litzateke!*».

AGENDA egunez egun

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Martxoaren 16tik apirilaren 3a bitarte Arizkunenean Lekarozko Institutuak antolatua, *Adierazten irakatsi, begiratzan ikasi* Plastika Hezkuntzako Mintegia.

ETXALAR

Martxoaren 18tik apirilaren 18a bitarte Elizondoko Clara Santamariak paratuko du olio-pintura oihalean egindako margolaren erakusketa Kultur Etxean. Lan egunetan 16:00-19:40 eta asteburu eta bestatan 12:00-14:00, 18:00- 20:00.

BERA

Apirilaren 5etik 18ra Gloria Askaso margolariaren lanak ikusgai Kultur Etxean.

LESAKA

Apirilaren 12tik 25era Pedro Lanz, burdin artisauaren lanak ikusgai Beti Gazteren egoitzan, 18:30etatik 20:30etara.

MENDI ATERALDIK

ZUGARRAMURDI

Apirilaren 11n Artikutzara ateraldia eginen du Atxuria menditaleak.

SUNBILLA

Apirilaren 3 eta 4an Hiru Erregeen Mahaira eta Anira joanen da Illurdi menditalea.

Apirilaren 18an Peña Platara (Atxuria) joanen da Illurdi menditalea.

BAZTAN

Apirilaren 4an Hondarribiara ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek. **Apirilaren 18an** Burgara ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

LEITZA

Apirilaren 4an Urrizola-Satrustegi eta Beriango mendizarrak-Unanu zeharkaldia eginen du Mendibil menditaleak.

ttipi-ttapa • agenda praktiko

TELEBISTAKO TXOKOA




ARRAIOZKO JOSE MENDIGURENEN ESKUTIK Euskal makila nola lantzen den ortziraleko Erreportaian

Makila hagitz aspalditik izan da euskaldunon lagun. Bere eskuari lotua, arma gisa erabilia izan da apuro-egoera aunitzetan, laguntzaile modura ere bai neke-momentuetan eta baita hainbat ospakizun eta besten protagonista lekua betez ere. Makila bera internazionala dela erraten ahal da, baina euskal makilak baditu bere bereizgarriak. Euskal makilak idientzat erabiltzen den akuiluan omen du bere jatorria, baina euskaldunon laguntasunaren eta mirespenaren sinbolo bihurtu da eta hemengo alkateek eta lehendakariak ere makilak hartzen dituzte oraindik, duten agintearen seinale.

Euskal Herri osoan gutti dira makila lantzen aritzen direnak eta inor ere ez seguru aski, horretaz bakarrik bizi dena. Halere, badira eguneko ogia hortik ateratzen ez badute ere, egunero-egunero lan horretan aritzen direnak. Arraiozko Jose Mendiguren da horietako bat. Sortzez Astigarragakoa, bizi gehiena Oiartzunen emana eta azkeneko hemezortzi urteotan Arraiozen bizi da Jose. Bere etxean eskuzabalik hartu gaitu eta makil bat nola egiten duen ikusi bitartean, lasai ederrean solasean aritu gara berekin. Ortziraleko Erreportaian solasaldi hau ikusgai izanen duzue ttipi-ttapa telebistan.

DISKAK



«Txukalda»

Morau ta agotak

Gaztelupeko Hotsak, 2004

Txukalda, Goizueta aldean dagoen borda baten izena da eta bertan burutu dira diska honen azken prestaketak. Ez da diska honek gure eskualdearekin duen harreman bakarra, Morauren *agoten* artean baitaude Berako Beñardo Goietxe (gitarra elektrikoa eta ahotsak), Petti (gitarra elektrikoa) eta iñigo Telletxea (tronpetea), bertze laguntzaileen artean. Gainera, Beñardo Goietxeri leporatu behar zaizkio ahotsei dagozkien ekoizpen eta moldaketak eta haren ardura dira gitarra fresko eta jostariak, eta gurean antzekotasunik ez duten bigarren ahots fin eta irudimentsuak. Kantu guziak Andoni Tolosa «Morau»renak dira, Xabier Leteren «Haizea dator» izan ezik. Jabier Muguruzaren akordeoia ere somatzen da «Geltokiak» kantuan. Alor grafikoa, beriz, Iñaki Martiarena «Mattin»ena da.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Martxoaren 12tik 19a bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 39,50 € (-1,00 €)

Zerri gizena
1,070 € kilo. (=)

Zerramak:
0,500 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3, 10 (-0,03)

1.koa 2,95 (-0,03)

2.koa 2,82 (-0,03)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,15 (-0,03)

1.koa 3,02 (-0,03)

2.koa 2,89 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg.kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

uruxak 250,00 (=)

idixkoak 260,00 (=)

Aretze nabarrak:

uruxak 192,00 (=)

idixkoak 220,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,90/2,96

Zaldi-behorrak: 1,70/1,90

Bildotsak: €/k

6-8 kiloak: 5,70/ 6,00

8-10 kiloak: 4,45 / 4,95

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Ikusmena eta presbizia

Presbiziaren ezaugarri nagusia hurbileko ikusmenaren kalitatea gero eta tikiagoa dela da. Lehendabiziko agerpena, hobe ikus-teko irakurtzerako orduan besoa luzatu behar dugunean nabari da. Denbora luzez irakurriz gero ezerosotasuna eta logalea somatzen da. Denborarekin, hurbileko ikusmena gero eta txaragoa da, azkeneak irakurketa erabat galerez.

Hurbileko objektuak enfokatzeko zailtasun hau 42 urtetik aitzin ageri da irakurketa distantzian, denborarekin gero eta gehiagora egiten du eta tarteko distantziara hedatzen da.

ZEIN DIRA PRESBIZIAREN ONDORIOAK?

Hasieran, presbiziak ikusmen erosotasunaren eta eraginkortasunaren guttitzea dakar. Hurbileko lanean moteltasuna, nekea, kontzentrazio falta, buruko mina eta la-



nean egiten diren akatsen haunditzea izaten dira lehendabiziko epe honen ezaugarriak.

Gainera, irakurtzeko ohitura galtzen da poliki-poliki, baita, orokorrean, ikusmen lan luzea behar duten hurbileko ariketa guziena ere. Ondoko faseetan, hurbileko ikusmenen desenfokoa gero eta haundiagoa

da, irakurketa ezinezkoa bihurtu arte.

PRESBIZIAK GUZIOI ERAGITEN DIGU?

Mundu guziak izaten du presbizia azkenean, baina horrek ez du erran nahi presbiziaren duten pertsona guziek hurbiletik gaizki ikusten dutenik. Miopia eta presbiziaren batera dutenek, adibidez, hurbilera ongi ikusiko du-

te miopiako betaurrekoak kentzen badi-tuzte.

Presbiziak ez dauka soluziorik. Baina bere eragina erabat murrizten ahal dugu betaurrekoak edo ukipen lenteak erabiliz. Optika oftalmikoan egindako aurrerape-nei esker, kasu eta erabilpen bakoitzarentzako soluzioa bi-latzen ahal da, presbiziaren duten pertsonen ikusmena berriz ere erosoa eta eraginkorra izan dadin.

Presbiziak bere prozesua segitzen du, betaurrekoak erabili edo ez. Betaurrekoak gero eta beranduago erabiltzea dependenziazirik ez sortzeko, ez dauka inolako zentzurik. Hori bai, aitzinetik montatuak heldu diren hurbileko anteojoak ez dira bate-re gomendagarriak. Espezialistaren kontrolik gabe erabiltzeak ikusmena kaltetu dezake, ez baitira kontuan bi begien arteko graduazio aldaketa, astigmatismoa...

DEIALDIK

LESAKA

Apirilaren 4an Hizkuntza Eskubideen Aldeko Eguna antolatu du Euskal Herrian Euskaraz taldeak. Egitaraua 10. orrian.

Apirilaren 16an «Lesakan Zehar» ibilaldia, Rafael Eñeterreaga, Egoitz Telletxea eta Jose Miguel Ariztegiarekin. Plaza Zaharrean 17:00etan.

Apirilaren 17an Herri Olinpiadak, Lesakako Gaztik antolatu, Plaza Zaharrean goizetik.

Apirilaren 18an Erdi Aroko Feria Plaza Zaharrean, goizeko 10:00etatik aitzinera.

TXOTXONGILOK

ZUGARRAMURDI

Apirilaren 17 eta 18an Eskual Titiriteroen Topaketa.

BERA

Apirilaren 5ean Enkarni Genua eta Txotxongilo taldearen «Galtzagorriak» Kultur Etxean 10:00etan.

SOLASALDIK

LESAKA

Apirilaren 22an «Sorginkeria Lesakan» solasaldia eskainiko du Juainas Paul Arzak historialariak Herriko Etxeko Batzar aretoan, 19:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Mar. 29tik apirilaren 4ra

Arantza, Bera (M.L. Apeztegia), Sunbilla, Elizondo (F. Garcia Mata), Leitza (A. Gimeno).

Apirilaren 5etik 11ra

Lesaka (M.J. Txoperena), Doneztebe (M. Etxarte), Elizondo (R. Gezuraga), Leitza (M.I. Larraia),

Apirilaren 12tik 18ra

Bera (A. Lasarte), Igantzi, Ituren, Irurita, Leitza (M.T. Plaza).

LIBURUAK



Ehortzi ezazue ene bihotza *Wounded Knee*

Dee BROWN

TXALAPARTA, 2004

Ez da gure burua edertzen duen liburua —zioen 1970ean liburua idatzi zuen Dee Brown idazleak— baina historiak badi-tu bere bidexkak orainaldira iristeko, eta agian, irakurriko dutenek, indiar ipar-amerikarren izaerari buruzko ikuspegi argiagoa izanen dute, iragan garaietan nolakoa izan zen jakitean. Beharbada indiarren ahotan hitz zuzen eta arrazoizkoak entzuteak harritu ere egi-nen ditu, mito ipar-amerikarren errukirik gabeko basatien

izaera estereotipatu horretan finkatuta agertzen baitira. Agian, lurra kontserbatu eta zaintzeko erabateko joera zuen herriarengandik ikasi ere zerbait ikas dezakete Ama Lurra- rekin norberak duen harremanari buruz. Indiarrek bazeki- ten lurraren eta beronen emari- en baitan dirauela biziak, Ame- rika paradisua zela, eta ezin zuten ulertu ekialdeko arrotzak nola zeuden, indiarra zen oro, amerikarra ere izanik, jo eta txikitzeko erabakia hartuta.

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

UKULU PROMOZIOAK, S.L.

**Urbanizatutako Lur Sailen
Salmenta 500 m²
Sunbillan, Nafarroako Iparraldeko
Natur Ereku preziatuan, mendiari
begira. SUNBILLA. Irundik 20
minutura eta Iruñatik 30 minutura.**

Tel.: 948 451 596/ 667 424 635

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

ERRATZU. Pisua salgai. 98 m², mobleztatua. ₪ 678 209907.

BERA. Herri erdi-erdian pisua salgai. Berritua. ₪ 696 561158.

Egurrezko etxebizitzak eraikitzen dira prezio onean. ₪ 649 792399.

ETXEBIZITZAK

102 Erosi

BERA. Pisua erosi edo errentan hartuko nuke. ₪ 678 209907.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

BERA. 100 m² kopisua errentan ematen da, herrigunetik kanpo. Kalefakzio zentralizatua. ₪ 616 244210.

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. ₪ 635 587552 (19:00etatik aitzinera).

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. ₪ 666 985449 (18:00etatik aitzinera).

BERA-LESAKA-ETXALAR Pisua errentan hartuko nuke. ₪ 687 039889.

BAZTAN. Pisua errentan hartuko nuke urte osorako. ₪ 690 167449 (10:00etatik 22:00etara).

ADOS



- **BERA.** -Pisu pare bat salgai.
- **DONEZTEBE.** - Santa Luzia plazan lokal komertzialak salgai.
- 114 m²ko pisu bat salgai. Berria.
- **ELIZONDO.** - Pisuak eta terenoak erosten dira.
- **BORTZIRIAK.** - Terenoak eta baserriak erosi nahi dira.

BAZTAN-BIDASOAN: Baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai. Aukera zabala.

948 451 841 / 607 978 656

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

SUNBILLA. Bustitz ostatua errentan eman nahi da, igerrilekuaren ondoan. ₪ 948 450504.

LANA

301 Eskariak

Esperientzia duen emakumea eskaintzen da sukalde laguntzaile aritzeko, afarien txandan eta larunbat arratsetan lan egiteko edo etxeko lanak egiteko arratsaldetan. ₪ 948 451437.

DONEZTEBE. Emakume batek etxeko lanetan edo haurrak edo zaharrak zaintzen lan egingen luke. ₪ 637 997526.

Klinika laguntzailea eskaintzen da adinekoak edo haurrak zaintzeko. Laguntza beharra dutenak zaintzen esperientziaduna. ₪ 690 167449.



LESAKA

Herrigunetik 800 metrora dagoen etxea salgai

- Garajea, beheitiko solairua 51 m² erabilgarriak
- Beheko solairua, 107 m² erabilgarriak
- Bigarren solairua, 113 m² erabilgarriak
- Tximeneta, berogailu zentrala eta lorategia.
- Ekipatua eta mobleztatua.
- 1.500 m²ko lur eremua inguruan.

₪ 948 637281 (denda orduetan)

ERAMAN ITZAZU OPARI GUZTI HAUEK

343 R
45 cc - 8,1 kg
Multi 300-3 jatorriko dala
Trimmy 50 profesionala
Duo Balance erres
730,00 €

345 R
45 cc - 7,9 kg
Multi 300-3 jatorriko dala
Trimmy 50 profesionala
Duo Balance erres
810,00 €

ERAMAN ITZAZU OPARI GUZTI HAUEK

345 R
45 cc - 7,9 kg
Multi 300-3 jatorriko dala
Trimmy 50 profesionala
Duo Balance erres
810,00 €

ESKAITZA BEREZIA!
395,00 €

BERRIA!
995,00 €

**Miguel Angel
LAKANBRA, S. L.**
Parrokia 22 • DONEZTEBE • Tfnoa: 948 451 783

Lan bila zabilta?

LAN ESKAINTZA

GIDARIAK

Nafarroako Gobernua eta Udaletxeetan
13 lanpostu libre.

BIGARREN HEZKUNTZA HAUR HEZKUNTZA

Bigarren Hezkuntzan
Lanbide Heziketan
176 lanpostu libre.

LAN ESKAINTZA

GARRAIOLARIA

Garraio txartel eskuratzeko
kapazitatea lortu. Izen ematea
apirilaren 2a baino lehen.

BASO LANGILE eta OIHANZAINAK

Nafarroako Gobernua
9 lanpostu libre.
Eskola Graduatua aski.

Presta zaitez. Informazioa dohan.

948 199 596



IKASTAROA LANA BILATZEKO TEKNIKAK Emakumea zara eta unibertsitate mailako formakuntza duzu?

Eguna: apirilaren 26, 29 eta maiatzaren 3, 6. Arratsaldean.
Informazioa eta izena ematea 619 829289 telefonon
(CEDERNA-GARALUR. Oskia Baraibar)

Emakumea eskaintzen da adinekoak edo haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko, orduka. ☎ 676 222055.

Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo haurrak zaintzeko, orduka, egun erdiz... ☎ 678 246733.

Emakume batek kamarera gisara lan eginen luke asteburuetan. ☎ 650 772171.

Asteburuetan igeltsero lanak eginen nituzke. ☎ 680 461631.

Emakume arduratsua (informe onekin) eskaintzen da garbiketarekin edo helduak zaintzeko. ☎ 628 079623.

Emakumea eskaintzen da etxeko lanak edo jatetxetan lan egiteko. ☎ 940 630972 edo 653 210160.

BERA. Gizonezko batek edozein lan eginen luke. Baudut Erresidentzia Baimena. ☎ 636 664577.

LANA 302 Eskaintzak

BERA. Ibardinen zerbitzaria behar du asteburu eta udan lan egiteko, bakarrik eguerditan. ☎ 629 694443.

ETXALAR. Pertsona bat behar da asteburuetan lan egiteko, Etxalarako Bentaren barran. ☎ 948 635000.

Sukaldeko laguntzaile eta kamarera behar du. Ikasteko gogoekin. ☎ 650831392 edo 948 631584.

Sukaldari profesionala behar du, maila altuko jatetxean lan egiteko. Balioaren arabera soldata. ☎ 948 625542.

Jatetxe zerbitzaria behar du, maila altuko jatetxean lan egiteko. Balioaren arabera soldata. ☎ 948 625542.

ELIZONDO. Denda batean lan egiteko langilea behar da. ☎ 619 829289

Ileapaindegi batean lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ 620 950329.

DONEZTEBE. Jatetxe batean pertsona bat behar da sukaldean lan egiteko. ☎ 617 333015.

ELIZONDO. Ileapaindegi batean lan egiteko neska edo mutila behar da. Ongi ordaindua. ☎ 619 097090.

Gidaria. Nafarroako Go-



ARANTZAKO UDALA

Birziketako proiektua, Urbanizazio proiektuaren aldaketa eta trukaketa

2004ko otsailaren 25ean egindako bilkuran Arantzako Udalbatzak hasiera batez onartu zuen U.E. 1. unitatearen birziketako proiektua, urbanizazioa proiektuaren aldaketa eta trukaketa Lucio Zugarramurdi Taberna jaunak sustaturik.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 151. eta 134. artikulua jarraiki aipatutako espedienteak hogeitaneuek egonen da jendaurrean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihar ramunetik kontatzen hasita.

Arantza, bi milako eta lauko martxoaren bial
ALKATEA,
Vicente AROCENA BIURRARENA Jauna

ARRIETA erlojudenda eta bitxidenda Erretiroa dela eta likidazio osoa

Tel: 948 580445 • ELIZONDO

bemurako eta Burlatako Udaletxerako 13 lanpostu. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Ezinduak. %33 edo gehiagoko ezintasuna baldin baduzu, Nafarroako Gobernua eta udaletxetan lana lortzeko aukera. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Zelaria. Osasunbideak 43 lanposturako deia, 5 ezinduentzat. Izen ematea irekia. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Harreragile-telefonista. Nafarroako Gobernua eta Udaletxeetarako lanpostuak. Eskola Graduatua. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Etxez etxeko laguntza. Lizarra eta Burlatan plaza libre. Eskola Graduatua. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Bigarren Hezkuntza eta Haur Hezkuntza. 176 plaza libre. BH eta LH. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Baso langile eta basozaina. Nafarroako Gobernua 9 plaza libre. Eskola Graduatua. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Lorezain, atezain, mantentimendua, udaletxe eta Nafarroako Gobernura langileak. Laster Arbizu, Burlata, Lizarra, Zangotza, Kastejon eta Milagron. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Garbiketa langileak udaletxe eta erakunde ofizialetan. Laster Doneztebe eta Burlatan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

MOTORRA 501 Salerosketak

Suzuki Samurai autoa salgai, NA-Z. ☎ 699 461394.

Honda Accord 1.800 LS autoa salgai. 5 ate, 136 cv, 62.000 km. 2000 urtekoa. Full equipe. ☎ 687 631624.

BMW 325 TDS auto urdina salgai. Egoera onean. Prezioa: 11.120 euro. ☎ 660 804799.

Carraro markako traktorea salgai, 60 zaldikoa, erremolke trakzionatuarekin. ☎ 678 959534.

ANIMALIAK 602 Salerosketak

Lastoa (ahotza) pacon

ADOS



AGENTE KOMERTZIAL BAT BEHAR DA

- Betebeharreko baldintzak:
- Emakumea izatea
- Euskaraz jakitea
- Gida baimena izatea
- Autoa izatea
- Adinak ez du inporta.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu:

948 451 841

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Opel Tigra, Mitsubishi Pick-up, Land Rover Discovery TDS, Suzuki Yim, Opel Zafira, Ford Escort TD, Galloper Escud, Volkswagen Golf TDI, Peugeot 206 XS SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

SAMPI ARAGON ZOANSA

Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu. Eskura ordaintzen dugu

☎ 948450354 • 948625555 • DONEZTEBE - BERA

haundietan salgai. Etxera eramaten da urte guzian. ☎ 607 457004 - 943 366040 (gauez, Dani).

Hiru betizu salgai, bi beren ume urruxekin eta bat umartzeko. ☎ 680 613474.

DENETARIK 702 Salerosketak

Bigarren eskuko **Femwich karretilla igogailua** erosi nahi dugu. ☎ 627 622333.

Kalefakziorako gasoil deposito homologatua salgai, 1.000 litrokoa. ☎ 948 637009.

DENETARIK 703 Bertzelakoak

Gitarra elektrikoa, klasikoa eta akustikoa, baxu elektrikoa, armonia modernoa eta talde instrumental klaseak ematen dira Beran. ☎ 600 028740 (Fermin).

Haurrendako 3 gurpileko silleta saltzen da, Jané markakoa eta kapota. ☎ 948 630858 (Ana).

Baserra batean lan eginen nuke ohea eta janariaren truke euskara ikasteko, ☎ 630 169753 (Gaizka).

Argazki soilak: 3,5 €. Bikoitza: 7 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,27€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3,5 edo 7 €ko txekia. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



IBON IRASTORZA Urdanitz beratarrak 4 urte bete ditu marxoaren 30ean. Zorionak Katti, atta eta amaren partetik.



BEÑAT IPARRAGIRRE OLASAGASTI etxalartarrak 8 urte bete ditu apirilaren 5ean. Auniz urtez bere familiaren partetik.



MAIDER MATXIKOTE ETXEBERRIA beratarrak 4 urte bete ditu marxoaren 30ean. Zorionak atta, ama eta bereziki Aneren partetik.



LUIS MARI MATXIKOTE beratarrak marxoaren 20an urteak bete ditu. Zorionak Rakel, Maider eta Aneren partetik. 35 muxutxu...



UGAITZ LARRAIDE IBARRA beratarrak 5 urte beteko ditu apirilaren 4an. Zorionak etxeko partetik eta muxu potolo bat lizaroren partetik.




JOSEBA PIKABEA MITXELENA beratarrak 7 urte bete ditu marxoaren 31n. Zorionak Eider, atta eta amaren partetik.



JANIRE MARTÍN GOIA lesakarrak 4 urte bete ditu marxoaren 26an. Auniz urtez eta muxu bat amatxi Pili eta Berako familiaren partetik.



EKINÉ MINDEGIA auriztarak 6 urte beteko ditu apirilaren 2an. Auniz urtez pottoli etxeko partetik.




IRATI LAZKANO NOTEGI MATXIARENA beratarrak 2 urte beteko ditu apirilaren 11n. Muxu haundi bat Andoni, Aitor, attatto eta amaren partetik.



DENIS LEIZAOLA PEREIRA lesakarrak 7 urte beteko ditu apirilaren 18an. Zorionak Unai, amatxi, izeba, atta eta amaren partetik!



IDOIA ETA ENDIKA GOIA DEL MORAL beratarrek apirilaren 14an eta maiatzaren 1ean, 1 eta 4 urte beteko dituzte. Zorionak!



ANE ANSOK 6 urte beteko ditu apirilaren 8an. Sei muxu haundi zure familia, ahizpa, ama eta aitaren partetik. Egun ona pasa zure lagunekin.



ANE PACHECO SAN JULIAN beratarrak 5 urte beteko ditu apirilaren 2an. Zorionak Aina, ama eta amaren partetik.

Itzi Rodríguez

Lenkonea

Foruen Plaza 2 • BERA
tel.: 948 625 542
faxa: 948 625 541

Estetika

Lilura
ileapaindegia

Rosa Seminario, 17
Tfnoa: 948 45 19 61
DONEYTEBE

9-13 / 15-20
Santitasen, 9-17

burbuila
ileapaindegia • estetika • solarium

Bizkaia 4, nagia LESANA • Tfnoa: 948 638 804

Beatriz
Estetika Zentroa
Lurrindenda

Santiago 53 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 263

peluqueria BICLAM

Braulio Harre, 58 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 581 874

ORDUTEGIA:
asteartetik ortzegunera 9:00-13:30 / 15:30-19:30
ortziraletan 9:00-19:30 • larunbatetan 8:00-18:00
igande eta astelehenetan itxia

Pinpirin
ileapaindegia

Aitziber Ubría Santesteban

Plaza zaharra 26
31770 LESAKA
Tfnoa: 948 63 80 37

Estetika
estetika gida • estetika gida

zure publizidadea
hilabeteetan behin
sartzeko deitu
948 63 11 88
telefonora
kulturkari@euskalnet.net

Muebles MINKA

- IRUN -

PROMOZIOAK!
terraza eta
lorategietarako
altzarietan

Terraza eta lorategietarako altzariak



- Aukerarik handiena
- Markarik hoberenak
- Material guztietan

Rattan eta Medulazko altzariak



- Logelak
- Tresilloak
- Jangelak
- Altzari laguntzajleak

Larunbata
arratsaldetan
irekia

- Dekorazioa
- Alfombrak
- Lanparak
- etab

República Argentina, 1 (IRUN erdialdean, Mendibil merkataritza zentruaren ondoan) • Tfnoa: 943 62 09 82

gurasoentzako ikastaroak

KONTU TXIKIAK
Apirilaren 19tik 29ra
Berako Haurtzaindegian

JOLAS TAILERRAK
Maiatzaren 3tik 20ra
Berako Haurtzaindegian

NORENTZAT:

Gurasoentzat bereziki Hezitzaile eta begiraleentzat Irakasleentzat

IZEN EMATEA: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea (Arantza)

KONTU TXIKIAK Apirilaren 5etik 14ra. **JOLAS TAILERRAK** Apirilaren 19tik 28ra.

Tfnoa: 948 634 125 bortziriak@euskalnet.net

Arantza



**BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA**
Herriko plaza 7 • ARANTZA
Tfnoa: 948 634 125
Faxa: 948 634 192
bortziriak@euskalnet.net

Laguntzaileak



zt
h t k II

N f rr k Kutx k
n k r ukz t

EZ GUTU EZ ZU T G NIST E I

1. ET 2. U TET IIITE ES

G INE U TET N

UT

EU I + EU I + ,5 2,7 *

T S ZI LI I MISI I E IE ,5 I 35 U TE TE M TIZ ZI

*1 . ur k 2 urt r < m l u t ntz t, ,5 - < k m s r k r .2 < Urt rrl k ur rr 2,21

5-E ES NU M TIZ ZI - SEC U NET 1 - EIXE KIZ EN IS U NIZE N (L U TE N) MS D TEL H N (L U TE N)

r h N f rr utx r n ul t n 222 333 t l f n n

N F RR

UTX

H tz n r r zuk r z z zun.